

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Aldebakartasuna ez da
aldarrikapen bat IÑAKI ALTUNA > 11

ARRAUNAZ ANALISIA:

Sagarrondoa astindu nahian

ZURIÑE IGLESIAS > 22

2023ko azaroaren 11 | XVII. urtea • 850. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik

www.gaur8.info



«GURE HIZKUNTZA HILDA BADAGO, ZEIN HIZKUNTZATAN ARI GARA?»

DUELA IA 15 URTE UNESCOK EGINDAKO ZERRENDA BATEAN, MANXERA HIZKUNTZA ZELTIKOA HILTZAT JO ZEN. IRLANDAKO ETA ESKOZIAKO GAELIKOEN AHAIDE DEN MANXERAZ MINTZATUZ HAZITAKO AZKEN PERTSONA 1974AN HIL ZEN ARRANTZALE BAT DELA DIOTE LIBURUEK. UNESCOREN EGOITZARA GUTUN BAT IRITSI ZEN. «GURE HIZKUNTZA GALDUTA BADAGO, ZEIN HIZKUNTZATAN ARI GARA IDAZTEN?»

GALDETU ZUTEN UHARTEKO ZENBAIT NESKA-MUTIKOK. > 4 Urtzi URRUTIKOETXEA



8



12



16



**Manxera, inoiz baino biziago
Maneko uhartean** 04

**Ikusmira: Israelen lagunek
sarraskia luzatzen dute** 08

**Emakumea sortzaile:
sorkuntzarako lekua eta denbora
izatea oraindik nekeza denean** 12

**Denak ez, baina bertso-epaile eta
gai-jartzaileek haien lanaren
sekretu batzuk azaldu dizkigute** 16

**Arraunaren sagarrondoa astindu
nahian: «Zergatik ez ditugu joko
arauak orekatzen?»** 22

**«Deepfake» sexualak: irudi
faltsuak eta ondorio errealak** 28

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



22



28

SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:**
Parisko Olinpiar Jokoak eta
hipokrisiaren podiuma
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:**
Niaren gurtza
- 11 **Iñaki Altuna:** Aldebakartasuna
ez da aldarrikapen bat
- 20 **Luixa Rezabal:**
Emakume ijitoen diskriminazio
hirukoitza
- 21 **Xabier Izaga Gonzalez:** Zer
diren gauzak (eta nola
kontatzen diren)
- 26 **Amaia Ballesteros**
- 27 **Miren Azkarate Badiola:**
Barrura begira
- 27 **Amagoia Mujika Telleria:**
Gauza batzuk ez dira aldatu
- 30 **Libe Mori Carrascal:** Zer dela
eta jasaten du kriptografia
alorrak etengabeko aldaketa?



{ datorrena } **Maite UBIRIA BEAUMONT**

Parisko Olinpiar Jokoak eta hipokrisiaren podiuma

Parisen iraganen diren Olinpiar Jokoen-tzat 300 egun baino gutxiago falta direlarik heldu dio Senatuak, alde batetik, atzerritarrak kanporatzeko prozedurak arintzeari, eta bestetik, enpresen beharren arabera horien kontratazioa erraztea xerkatzen duen egitasmoaren eztabaidari.

Batez beste bi urtean behin bere migrazio arauak tenkatzeko hautua egiten duen herrialdean, gero eta zailagoa izanen da, ordea, testuinguru zehatz bati bizkarreratzea eguneroko paisaia ziprztintzen duen hautu politikoaren ardura. Azkeneko hiru urteetan Hendaia eta Irun lotzen dituen oinezkoentzako pasabidea itxita atxiki duen Estatuak agerian jarri baitu segurtasuna helburu izatetik politikaren ardatz iraunkor nagusia izatera pasatu dela aspaldian.

Terrorismoa, pandemia, migrazioa, munduko Errugbi Txapelketa... argudiaketa hornitzeko orduan aparteko arazorik ez du ukan Parisek. Migrazioaren aurkako legedia gogortzeko ekimen legegilea eztabaidaren atarian ireki dute; ordea, Euskal Herrian, oraindik ere, hetsiak ziren lau pasabide. Hainbeste denbora

itxaron eta gero, ez al da harrigarria erabaki hori gauzatzeko aukeratutako *tempo* zehatza? Bai, agian, segurtasuna helburu soila balitz; segurtasuna politika orokor baten geruza bat bezala ulertzen bada, ez.

Dares ikerketa eta estatistiken zentroaren arabera, etxeko lanetan jarduten duten langileen %40 jatorriz atzerritarrak dira, eta kasu askotan paperik gabe aritzen dira. Lorategietan edo eraikinen zaintza lanetan ibiltzen diren langileen %30 bezala. Ostalaritzan %40 dira, eta eraikuntza alorreko kualifikazio apaleko ofizioei erreparatuz gero, plantillaren %17. Barne Ministerioa eta Lan Ministerioa elkarlanean ari dira oraingo honetan migrazioaren gaineko arau berriak

sustatzeko lanetan. Olivier Dussopt eta Gerald Darmanin txanponaren bi aldeak dira.

Hirugarren artikulua izan da ika-mika handiena sortu duen artikulua. Izan ere, puntu gehienetan bezala, eskuinak eta zentroak botoak batu dituzte proiektuaren alderik leunenak ere gogortzeko. Eta Darmaninek ez dio aurre egin proiektua Asanblea Nazionalera itxuraldatuta bidaltzeko haien asmoari. Ultraeskuinaren bultzadapean, baina konbikzioz jokatu du Errepublikanoak (LR) alderdiak, milaka herritarren bizitza oraindik ere latzagoa bilaka dezakeen plana gehiago gogortu nahian.

Olinpiar Jokoen gaineko mezu betegarriak hedatzen ari dira, pitinka bada ere, Hexagonoko hedabideetan. Hori litzateke migrazioaren aurkako egitasmoaren

Ezkutuan lan egiten duten atzerritarren egoera erregularizatzeko prozesua trabatzera jokatu ostean, osasun sistemaren atea itxi nahi diete paperik gabekoei frantziar errepublikanoek

testuinguru zehatza. Alta, mundu mailako kirol hitzordu horren atzeko patioan agertzen diren interes ekonomikoei buruzko auziak, ez soilik ilunean eginiko lan esklaboa, argitara eramatea ezinbestekoa da.

Ororen gainean, legearen eztabaidak hipokrisia podiumera eraman du. Hiru urtez paperik gabe iraun ondoren gutxienez zortzi hilabetetan eskubiderik gabe lan egin dutenei urtebeteko lan baimena eskaintzea proposatzen zuen Gobernuak. Tentsiopeko sektoreetara mugatutako erregularizazio horri trabak jarri, osasun babesak kendu, eta lurralde eskubidea zailantzan jartzeko urratsa egin dute Senatuan agintzen duten errepublikanoek. Jauzi hirukoitz olinpikoa. •

MANXERA, INOIZ BAINO BIZIAGO

Maneko uhartean ahalegina egiten ari dira bertako hizkuntza berreskuratzeko

Duela ia 15 urte Unescok egindako zerrenda batean, hizkuntza zeltiko bat hildakotzat jo zen. Izan ere, Irlandako eta Eskoziako gaelikoen ahaide den manxeraz mintzatzen hazitako azken pertsona 1974an hil zen arrantzale bat dela diote liburuek. Hala, Nazio Batuen Erakundeak azken hiru belaunaldietan galdutako 200 mintzairen artean izendatu zuen Maneko uharteko gaelikoa.

Unescoren egoitzara, baina, gutun bat iritsi zen. «Gure hizkuntza galduta badago, zein hizkuntzatan ari gara idazten?», zioten uharteko zenbait neska-mutikok. Izan ere, XX. mendean jatorrizko azken hiztuna galdu zuen hizkuntza ume eta gaztetxoan ahotan entzuten da gaur egun. Oraindik ere galtzeko arrisku bizi dagoen mintzaira da manxera, baina hildakotzat jotakoa bizirik egote soila asko da.

2021ean egindako azken zentsuan 2.000 manxera hiztun baino gehiago ageri ziren, lehen aldiz XX. mendearen hasieratik. Zentsuan hiztun gisa agertzea eta benetan mintzatzea ez dira gauza bera, baina, edozelan ere, ofizialki badira uharteko biztanleen % 2,5 inguru. XX. mendean ez zen egon manxeraz mintzaten zen haurrik. XXI. mendean, berriz, Tynwald izeneko muino eta Parlamentu historikoaren ondoan, ostera ere hizkuntza gaeliko zaharra darabilte dozenaka umek eta haien irakasleek Bunscoil Ghaelgagh eskolan.

Julie Matthews da ikastetxe-ko zuzendaria, haren eskutik bisitatu ditugu harrizko erai-

HIZKUNTZAK / Urtzi URRUTIKOETXEA

Unescok bere garaian hildako hizkuntzen zerrendan sartu zuen arren, manxera berreskuratzeko lan handia egiten ari dira Maneko uhartean. Azken datuen arabera, 2.000 hiztun inguru egon daitezke irlan, eta kopurua hazten ari da. Bunscoil Ghaelgagh eskolako haurrak dira hedatze horren adibide onena.

kin sendoko gelak. Manxeraz irakasleak, manxeraz haurrak. Ondo ezagutzen dugun errealitatea daukate, ikasgelatik kanpo ingelesa nagusitzen da nahi baino gehiagotan. Oraindik ere, ia ez dago manxera etxetik dakarren ikaslerik, bizpahiru familia kalkulatu dituzte gehienez ere. Etxe gehienetan gurasoetako batek behintzat manxeraz daki, baina oso gutxi dira horiek ere. Itxaropena dute, ordea, hori guztia aurki aldatzeko, Buns-

coil Ghaelgagh-etik pasa zen lehen belaunaldiak hogeitaka urte baititu dagoeneko.


MANXERAZKO MURGILTZEA

Hizkuntza eskolan sartzea XXI. mendeko berpizkundearen faktore garrantzitsua izan den arren, XX. mendean manxeraren bultzatzaile talde batek egindako ahalegina izan zen Maneko gaelikoa ez hiltzearen giltzarria. Duela urte batzuk (2019an hil zen) Brian Stowell manxeraren

berpizkundearen arduradunak esan zigunez, «oso behetik abiatu ginen, beraz ez da harritzekoa aurrerakada polita egin izana. Elementu garrantzitsua herri-ekimenaren babesa izan da. Jende arruntak manxera eskoletan irakastea nahi zuen. Baina ezin go genukeen egin Gobernuak diruz babestu ezean, manxerak inoiz izan duen benetako finantzaketa bakarra!».

Maneko uhartea administratiboki ia independentea izanda ere, Ingalaterrarekiko mendekotasun politiko eta ekonomikoak kolonialismo kulturala ekarri zuen historikoki. «Manxerak ez dizu sosik emango» esaldia nagusitu zen, eta belaunaldi batean eten egin zen transmisioa. 1901erako, Maneko biztanleen ehuneko bederatzik baino ez zekien hizkuntza. Nagusiak ia guztiak, arrantzale gazteago batzuek ere jakin arren, irlan-

Ezkerrean, Bunscoil Ghaelgagh eskolan hartutako irudia. Erdian, Castletown hiriko ikuspegia, uhartearen hegoaldean. Eta eskuinean, Port St. Mary hiriko ongiatorri mezua, ingelesez eta manxeraz. Urtzi URRUTIKOETXEA



dar arrantzaleekin ere gaelikoz egiten baitzuten. Baina I. Mundu Gerrarekin, hura ere amaitu zen.

Ned Maddrell izan zen arrantzale horietako bat. 97 urterekin hil zen 1974an, eta jatorrizko azken hiztun gisa gogorarazi ohi da. Hizkuntzaren mugimenduan diotenez, ez zuen aparteko eraginik izan. «Manxera komunitate-hizkuntza nagusi gisa aspaldi hil zen, XIX. mendean. Baina beti egon zen manxeraz ondo mintzatzen ikasi zuen jende nukleo bat. Haiek izan ziren egungo berpizkundearen arduradunak. Ned Maddrell-ek eta jatorrizko beste hiztun zaharrek argi eta garbi bultzatu zuten hizkuntza. Haien seme-alabek sarritan ez, ordea», zioen Brian Stowell.

XX. mende hasieran zenbait hizkuntzalarik manxeraren azken hiztunen mintzaira hobeto dokumentatzeko aha-

legina egin zuten. Baina hizkuntza berpiztu eta berriz mintzatu nahi izan zuen belaunaldia ez zuen mundu guztiak begi onez ikusi. «Azken hiztunetako baten alabak ezin zuen ulertu zergatik nahi zuen inork manxeraz ikasi! Zaila da azaltzea zenbaterainoko aurkakotasuna zeukaten Maneko herritar askok. Gehienek guztiz kolonizatuta zeukaten burua, hizkuntza ikur lotsagarria zen haientzat. Baina gero manxarrak zirela esaten zuten harro. Ezaugarri berberak aurki litezke kultura gutxitu askotan», zioen Stowell, Piriñoetara egindako txango batean erosi zuen euskarazko gramatika gogoraraziz.

IRLANDATIK BABESA

Errezeloak errezelo, talde txiki bat hasi zen manxera berreskuratzeko asmoz. Eta irla barruan aurkitu ezin zuten kan-


poko bultzada garrantzitsua izan zuten 1950eko hamarkadan, dozena bat hiztun baino ez zeudela. Eamonn de Valera Irlandako presidentea Man uhartera etorri zen bisitan, eta gaelikoz mintzatu zen Ned Maddrellekin, irlandaraz bata, manxeraz bestea. Haren ostean, Irlandako Foklore Batzordeak eta Yn Çheshaght Ghailckagh-ek (Manx Gaelikoaren Elkarte) grabaketak egin zituzten.

1961eko erroldan inoiz baino hiztun gutxiago ageri da; egun, ia 15 aldiz handiagoa da kopurua. Baina jatorrizko hiztunak hil ahala, berriak ere sortu ziren. Ekimen pribatu edo herri-elkarteei lotutakoak ziren, ia babes ofizialik gabekoak, harik eta 80ko hamarkadan gauzak aldatzen hasi ziren arte. 1985ean Maneko Parlamentuak hizkuntzaren aitortza ofiziala egin zuen, eta «1992an,

«Azken hiztunetako baten alabak ezin zuen ulertu zergatik nahi zuen inork manxeraz ikasi! Zaila da azaltzea zenbaterainoko aurkakotasuna zeukaten Maneko herritar askok. Gehienek guztiz kolonizatuta zeukaten burua, hizkuntza ikur lotsagarria zen haientzat»

Brian Stowell manxeraren hizkuntza arduradun izendatu zuten. Gurasoei galdetegi bat egin zieten, seme-alabek manxera ikastea nahi ote zuten, eta espero baino erantzun positiboagoa jaso zuten. Bi irakasle kontratatu behar izan zituzten. 7-11 urte bitarteko lehen hezkuntzako haurrei astero 30 minutuko eskolak ematea erabaki zen, eta DBHko ikasleei eskolaz kanpoko ikasgai gisa», dio Rob Tearek, manxerazko irakasle eta irlako eskolen arduradunak.

90eko hamarkada amaierarako, manxeraz murgiltzeko Mooinger Veggey haur-eskola sortu zuten, eta 2001ean zabaldu zuten Bunscoill Ghaelgagh. Oraingoz, lehen hezkuntza amaitu artekoa. Bigarren hezkuntzako institutueta ez dago manxerazko murgiltze-eredurik. «Peel hirian badago ikasgai batzuk manxeraz egiteko aukera», Tearek dioskunez.



JULIE MATTHEWS BUNSCOILL GHAELGAGH ESKOLAKO ZUZENDARIA

«Guraso batzuek haurrekin batera ikasten dute manxeraz»

Haurrek manxerazko eskola arautua hartzen duten bitartean, aldamenean dagoen Greens kafetegian dozena erdi lagun batu dira goizean. Batzuek beste batzuek baino jario hobe dute, baina denak dira gutxi-asko manxeraz egiteko gai. Mintzapraktika saioek berebiziko garrantzia dute, arnagunerik edo manxera nagusi den herri edo eskualderik ez baitago, uharte osoan zehar daude sakabanututa hiztunak. Estatistikoki, eskolaren ondoko Peel herrian portzentaje handiagoa dago (apala, betiere), baita jatorrizko azken hiztunak egon ziren Cregneash hegoaldeko eskualdean ere. Baina hiztun gehienak Douglas hiriburuan daude (Doolish, manxeraz).

Manxeraren aktibistek gogoratzen duten bazterketa-giroaren oso desberdina nabari da gaur egun: kale-seinaleak, eraikin askoren izenak... manxeraz ageri dira. Gobernuak eskola finantzatzen du, eta gogoan izan behar da, estatus administratibo oso berezia daukan uhartea dela Man, ez da Erresuma Batuko zati, eta Brexitaren aurretik ere ez zen EBko kide. Eskoziak edo Galesek baino autonomia handiagoa dauka, eta paradisu fiskal gisa agertu izan da zerrenda askotan.

Hazkunde ekonomikoak uhartetik kanpoko jende asko ere erakarri du; gaur egun, biztanleen erdiak baino ez dira bertan jaiok, baina manxeraren bultzatzaileen artean badaude kanpotik etorriak ere. Mec Vannin alderdi independentista txikiak uhartea errepublika bihurtzea bultzatzen du; manxeraren berpizkundearen protagonistetako batzuk (Mark Kermode idazkari nagusia, kasu) alderdi honetako kide dira.

Nola hasi zen eskola?

2001ean hasi genuen. Haur-eskolara joaten ziren umeak, eta ikusten zuten pena zela hor manxera hartzea eta gero eskolara joan eta ingelesez jarraitzea. Douglasko ikastetxe batean gela batekin hasi ginen, bederatzi ikasle genituen. 17 ziren hurrengo urterako, eta 2003an St John's-eko eraikin honetara iritsi ginen. Steve Rodan, Tynwaldeko presidentea eta garai hartan Hezkuntza ministroa, oso gure aldekoa zen. Ikusi zuenean zuzen ari

ginela, haurrak ikasten ari zirela, zuzendari izaten utzi ziguten, neu aurkeztu nintzen, eta hala naiz ordutik. Egunotan 60-70 ikasle ditugu, eta lau ikasgela. 4tik 11 urtera arteko umeak ditugu. Hortik aurrera, Peelera badoaz, badituzte ikasgai batzuk manxeraz.

Zein profil dauka hemengo ikasleak?

Denetik dago. Guraso batzuek eskola txiki bat nahi dute, gelako ume gutxirekin. Beste batzuek haurrek manxeraz

egitea nahi dute. Beste batzuek bigarren hizkuntza baten abantailak nahi dituzte. Hasieran gurasoek ez zekiten manxeraz, baina guk ere gero eta gehiago ditugu, Adrian Caine-ek ezarritako programari esker, umeekin batera gurasoek ere ikas dezaten. Eta ikusten dugu ahalegin hori egiten duten gurasoen haurrek askoz hobeto egiten dutela. Galesen izan gara, hango esperientzietatik ere ikasten, noski, han askoz diru gehiago inbertitzen dute, baina haien ideiei jarraitzen diegu.

BOB CARSWELL

«Garai batean manxera hiztun guztiak ezagutzen nituen; egungoa pentsaezina zen!»

Manxerazko ahotsik ezagunenetakoa da, hamarkada luzez irratan egindako lanari esker, eta eskolan ere erabiltzen diren idazlan eta itzulpenengatik.

Zure kasuan, oso gaztea zinela ikasi zenuen manxera, ezta?

Umetan, "Manxerazko Lehen Lezioak" liburua aurkitu nuen etxean, baina amak ez zekien zelan ahoskatzen zen, esaldi batzuk baino ez zekizkien. Aitona-amonek ere ez zekiten, baina "Itun Berria"-ren manxerazko edizio bat aurkitu nuen amonaren etxean. Haien gurasoek ba omen zekiten, antza nire birraitonak manxeraz egiten zion tarteka birramonari, baina honek ingelesez erantzun. XIX. mendearen erdialdean utzi

zioten transmitzeari, esaten zuten ez zuela dirurik ematen, merkataritzaren hizkuntza ingelesa zen, britainiar inperioaren garaia zen. Pentsatzen dut orduantxe sortuko zela ingelesaren Maneko dialektoa ere, buruan manxerazko gramatika zeukatenek itzulita. Badira poemak eta narrazioak, literatura, estandarretik aparteko ingeles mota horretan, gramatika gaelikoz.

Azken hiztunak hiltzen ari ziren, baina gazte belaunaldi berri bat ikasten ari zineten ordurako.

Hori zen garaiko giroa, mugimendu indartsua zegoen, jende gutxi ginen, baina sare polita geneukan, elkarrekin hitz egiteko, azken hiztunak aurkitu, grabaketak egin...

Ondare garrantzitsua bildu zen. Uhartean giro nahasia zegoen, bazegoen sentipen bat *stablishment*-a, agintariak dirua egiten ari zirela bertakoon kalterako, lurrak eta etxeak salduz. Jende asko etorri zen zerga baxuek erakarritara, bertako gazteek ordaindu ezin zutena ordainduz. Protestak egin zituzten, pintadak errepideetan, eta beste adierazpide batzuk ere izan ziren, dantzek bultzada handia izan zuten, eta hizkuntzarekin berdina, jende asko etorri zen manxera-eskoletara. Kaleko protestaz gain, mugimendu kultural handia egon zen, manxerazko musika berritzen, edo antzerkian, Gabonetan egiten diren antzezpen satirikoekin, kasu. Gero Doug Fargher-en hiztegia iritsi zen 1978an. Batzuek diote

Noiz ikasi zenuen zuk?

Beti izan dut manxera inguruan. Umetan, azken hiztunetako bat gure etxera etorri zen, grabatu egin zuten Aita Gurea erreztatzen manxeraz. Brian Stowell eta besteek ikasi eta irakatsi zuten. Pubetan ere baziren eskolak, badakizu, tragoren batekin ere lotsa galtzen da. Nik ere gogoan dut 16 urte nituela, gaztetxotan, edateko adinik ez, baina Annie lagunarekin joaten ginen entzutera, ahal genuena praktikatzera, gehienak gizon zaharrak ziren, baina ahal zena ikastera. Binaka jartzen ginen eta mintzatzeko aukera

«Gaur egun 60-70 ikasle ditugu, eta lau ikasgela. 4tik 11 urtera arteko umeak ditugu»

ona zen. Baina dena ingelese denean zure inguruan, zeuk sortu behar dituzu hitz egiteko aukera horiek. Eta aurrerago manxerazko eskolak jaso genituen. Interesa hor zegoen, jende asko zegoen, baina denek ez zuten ikasteko aukera.

Orain bada etxean manxeraz egiten duenik?

Nire haurrak bai, belaunaldi berria dira, baina gero ez zuten ikasketetan jarraitzerik izan, eta asko galdu zuten. Nagusiak gerora berriz berreskuratu du.




Urtzi URRUTIKOETXEA

neologismo gehiegi dituela. Agian zertxobait zaharkitu da, baina perspektiban ikusita, merezi izan zuen, ezta? Irratian manxerazko titular batzuk sartzen hasi ziren 1970ean, eta lekua irabazten joan zen hamarkadan zehar.

Azken hiztuna 1974an hiltzeak zein eragin izan zuen hizkuntzaren garapen horretan?

Ned Maddrellek txiki-txikitan ikasi zuen ingelesez, ezin zuen esan zein zuen lehen hizkuntza. Baina argi dago harro zegoela manxera jakiteaz. Agian bazegoen manxeraz zekien besteren bat, baina harrotasun hori gabe, garai bateko lotsarekin oraindik. 70eko hamarkadan agian pubean norbaitek esango zizun “utzi zabor hori mintzatzeari”. XIX. mendean, XX.era arte ziur aski, manxeraz eginez gero, eskolan zigortu eta jo egiten zuten,




Urtzi URRUTIKOETXEA

«Ned Maddrellek txiki-txikitan ikasi zuen ingelesez, ezin zuen esan zein zuen lehen hizkuntza. Baina argi dago harro zegoela manxera jakiteaz. Agian bazegoen manxeraz zekien besteren bat, baina harrotasun hori gabe, garai bateko lotsarekin oraindik»

Galesen bezala. Horrek guztiak dakar lotsa.

Ia mende erdi beranduago, zein da zure balorazioa egindako bideaz?

Garai batean manxeraz zekiten guztiak ezagutzen zenituen, gaur egun etorri zait ezagutzen ez nuen jendea manxeraz eginez. Lehen hori pentsaezina zen! Oraindik ere, ez dago manxerazko herri edo komunitate nagusirik. Manxerazko asteburuak antolatu izan ditugu, hizkuntzan murgilduta tarte bat emateko. Sortu dira talde batzuk, musikakoak kasu. Orain erronka Bunscóill eta gero zein beste urrats egin asmatzea da. Noski, patiora irten eta ingelesez egingo dute askotan, baina manxeraz ere bai, edozer adierazteko gai dira, triste daudenean, negarrez, pozez, sentimenduak adierazteko gaitasun erabatekoa daukate.



Mahmud HAMS, Ibraihm HAMS, Mohamed ABED, Ahned ZAKOUT, Said JATIB | AFP

IKUSMIRA

ISRAELEN LAGUNTZEK SARRASKIA LUZATZEN DUTE

Gazaren aurkako sarraskiak ez du amaierarik. Zerrendako bonbardaketak hasi eta hilabetera, ankerkeria bakoitzak aurreko eguneko gaitzen du. Ospitale bat, eskola bat, anbulantzia-konboi bat, okindegiak... Gaitzen ezin diren izuaren mugak etengabe gaitzen dira. Egunsenti bakoitzean, aurreko gaueko erasoetako hildakoak hamarnaka zenbatzen dira. Zenbatu daitezkeenak. Askok hondakinen azpian jarraitzen dute-eta. Zerrenda bitan zatituta, Israelgo armadak lurreko operazioa abiatu du eta iparraldeko inguruaren «garbiketa» behartu du. Eta ez da geldituko. Ez dago su-etenik, Israelgo Estatuak ez duelako lurraldearen suntsiketa geldiarazi nahi, eta horretarako bere lagunaren bedekazioa duelako. Izan ere, bere aliatuek 10.500 hildako baino gehiago izan ondoren, horietatik 4.300 haurrak, eta ia erabateko suntsipena lurralde osoan, Israelen «defentsarako eskubidearen» erretorikaren pean ezkututzen dira oraindik, eta salaketak kriminalizatzen dituzte. Pablo RUIZ DE ARETXABALETA





Saioa AGINAKO LAMARAIN
Psikoterapeuta

Niaren gurtza

Ego» hitza latinetik dator eta, besterik gabe, «ni» esan nahi du. Norbait egozentrikoa dela esaten dugunean, pertsona horrek mundua bere ikuspuntutik bakarrik ikusten duela esan nahi dugu, hau da, ez duela empatia sentitzeko gaitasunik eta ez zaiola axola bere ekintzek besteengan dituzten ondorioak. Psikologian alborapen kognitiboa da, hau da, informazioa prozesatzeko distortsioa, inguruan gertatzen dena oker interpretatzera eramaten duena. Erich Fromm psikoanalistaren arabera, egozentrismoa defentsa-mekanismo bat da; hau da, errealitateari aurre ez egiteko eta autoirudiari eusteko estrategia psikologiko inkontzientea da.

Budismoaren arabera, egoa niaren kontzepzio okerra da. Jaiotzean iristen da gurekin, eta bertan integratzen dira gure irudia, nortasuna, nazionalitatea, gustuak, grinak, kultura, hezkuntza, sinesmenak... Hala ere, emari hori guztia azaleko eraikuntza baino ez da. Prozesu horiei atxikitzen gaitzaizkie eta, egia esan, gure niaren benetakotasuna ezkutatzen dute, kanpora bideratuta daudelako, ez barrura.

Inguratzen gaituen egungo egoera soziopolitikoari begirada txiki bat ematen badiogu, egoaren erresuma goraka doala konturatuko gara. Asko dira niaren autodefentsa hori praktikatzen hasi diren herrialde eta liderrak, zurea eta nirea zedarritzeko.

Pertsona egozentrikoak munduaren erdigune sentitzen dira. Etengabe pentsatzen dute beren buruegan, eta garrantzitsutzat eta berezitzat jotzen dute beren burua. Bere iritzi eta interesak dira bere kezka bakarra, eta ez du zalantzarik besteen pentsamendu eta sentimenduei muzin egin eta gutxiesteko. Egozentrikoak ez du inoiz elkarrekikotasunik erakutsiko, bere beharrez bakarrik arduratzen baita. Pertsona horiek arrakasta eta botere fantasiak izaten dituzte. Uste dute ahalmen mugagabea dutela, eta edozein unetan arrakastarik distiratsuenera eramango dituela

horrek. Egiten duten niaren gurtza hain da handia, non empatiarik gabeko bihur baitaitezke.

Ego distortsionatuak etengabeko gabeziaren sentsazioaren mende jartzen gaitu. Besteek norberari buruz zer pentsatzen duten jakiteko obsesioa duen gogamenaren isla da. Munduari beldurrez erreparatzen dion begirada da: porrot egiteko, maitatua ez izateko, besteek espero duten bezalako ez izateko edo besteek baino gutxiago izateko beldurra. Barne-beldurrak ere, askotan, defentsa-mekanismoak gartzera bultzatzen gaitu, hala nola harrotasuna eta harrokeria, barne-ahultasuna babesten duten maskarak.

Eraikuntza psikologiko hori gure zati bat da, sozialki moldatzeko eraiki duguna. Horrek esan nahi du batzuetan ego osasungarri bat izan dezakegula, gure ongizatean eragina izango duena. Horrela, egoa gure eta besteen onurarako erabiltzeak mundua ulertzeko modua zabaltzea ahalbidetuko luke, malguagoa eta tolerantagoa izateko. Posible da egoera hori iraultzea, baina inplikatu nagusiak kontzientzia hartu eta aldaketak egitea erabakitzen duen neurrian bakarrik. Egozentrikoak fokua bere baitatik desbideratzen ikasi beharko du, inguruko iritzi, sentimendu eta beharrez gehiago jabetzeko.

Askotan egoa autoestimua handiarekin nahasten da, baina alderantziz da. Egoak norberaren nolakotasunen pertzepzioa areagotzen du, norberaren akatsak eta besteen eskubideak ahaztu edo kontuan hartu gabe. Autoestimua, aldiz, errealitatean oinarritutako miresmena da, akatsak onartuz eta autogorespena saihestuz. Gainera, ez du inoren nagusitasuna edo gutxiagotasuna kontuan hartzen.

Egoa, geure zati bat da, entitate subjektibo eta autoerai bat, eraldatu behar duguna zorionaren bitartekari izan dadin, ez sufri-menduarena. Bihotza jatortasunez elikatu dezagun mundu begirunetsuago eta hurbilago bat sortzeko. •



Egozentrikoak ez du inoiz elkarrekikotasunik erakutsiko. GETTY

{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

Aldebakartasuna ez da aldarrikapen bat

Pedro Sanchezen berriro presidente izendatzeko akordioa itxi da. Gobernua egingo du berriro. Inork gutxik esango zuen horrelakorik joan den maiatzeko hauteskundeetan, PSOEek jaso zuen jipoa ikusita. Sanchezek, ordea, mugimendu azkarra egin zuen, Espainiako hauteskunde orokorrak deituz, eta horrek aitaren batean eskuinaren –ultraeskuina barne– planak hankaz gora jarri zituen.

Joan den ostegunean iragarri zen PSOEek Puigdemontekin lortutako hitzarmena, amnistiaren legea ardatz. Dena egina dagoela dirudi, ostegunean oraindik EAJren baiezkua falta bazen ere. Alderdi gehienek erabili izan ohi duten negoziazio estrategia klasikoak jendea gogaitzen ez ote duen hausnartzen hasi behar luke hainbatek. Izan ere, oso agerikoa izaten ari da azkenaldian norberaren protagonismoa eta interesak gailentzen direla, batez ere datorren zikloan bai Euskal Autonomia Erkidegoan –hila bete gutxi barru– bai Katalunian hauteskunde autonomikoak izango direlako. Batzuen espektatibek eta besteen beldurrek gehiegitxo nahasten dute eguneroko joko politikoa.

Epe laburreko politikaren eta mugimendu taktikoen dantza da askotan ikusgarriena, baina azken hilabeteotan gertatutakoak hausnarketa sakonagoa eskaini behar luke, aurrera begirako ibilbideak marrazte aldera. Atentziona eman behar luke, esate baterako, aldebakartasunari buruz inbestidurako negoziazio prozesuaren hasieran esan zirenek, batez ere alderdi katalanen ordezkariek aldetik.

Aldebakartasuna estrategia indartsua izan zen Katalunian. Estatuaren itxikeriaren kontra, herri prozesu bat egituratu eta independentziaren atariraino eramane zuten. Une jakin batean, ordea, hurrengo urratsa ez egitea erabaki zuten, lurraldearen zein erakunde

kontrola bere esku hartzeko eta prozesu konstituziogile bat abiarazteko unean, hain zuzen. Bistan da urrats hori ez zutela eman Espainiako Estatuaren erreakzioak eragin zezakeen ondorioengatik. Zuzena edo okerra, erabakia zilegi izan zen. Seguru asko, prozesua horraino eramane eta gero, bigarren astinaldi bati ekiteko aukera sortuko zutela pentsatu zuten, baina ez zen horrela izan. Bildutako indarrak, oraingoz bederen, harea hatzen artean bezala aienatu dira.

Horregatik izan zen deigarria oraingo negoziazioen hasieran aldebakartasunari ez zitzaiola uko egingo hain ozen esatea. Aldebakartasunari 2017an egin baitzitzaion uko, hurrengo urrats hura egin ez zenean, eta orain, bistan denez, aldebiko negoziazio prozesu bat abiatzen ari dira. Beraz, aldebakartasuna aldarrikapen bilakatu dute, eta horrek, luzera begira, nahasmena ere sor dezake.

Aldebakartasuna ez da aldarrikapen bat, estrategia bat baizik; ia beti aldebikotasunarekin dialektikoki lotu beharrekoa, gainera.

Aldebakartasuna aldarrikatu baino gehiago, behar den unean praktikatu beharreko ibilmoldea baita, eta horretarako, funtsean, bi gauza behar dira: indarrak metatu/egituratu eta bide orri partekatu bat zirriborratu. Gainera, aldebakartasunak, orain arteko esperientziak erakutsi digunez, herriaren gehiengo batek bestelako bideak kamutsak direla ondorioztatzen duenean hartu izan ohi du indarra. Herri aldarrikape nei eta gogoari erantzun behar die.

Aldebakartasuna ez da aldarrikapen bat, estrategia bat baizik; ia beti aldebikotasunarekin dialektikoki lotu beharrekoa, gainera. •

EMAKUMEA SORTZAILE

Sorkuntzarako nork bere gela eta astia izatea oraindik nekeza denean

📁 ARTEA / Xole ARAMENDI ALKORTA

«Emakume batek dirua eta gela propioa behar ditu literaturan aritzeko». Hala zioen Virginia Woolfek "Gela bat norberarena" liburuan. 1929. urtea zen. Egun, parekidetasunari eta feminismoari buruzko saiakera klasiko eta erreferentziazkoetako bat den lana eman zuen argitara idazle ingelesak. Emakumeek dirua eta espazio propioa, espazio fisikoa eta espazio metaforikoa izatearen garrantzia nabarmendu zuen Woolfek. Ia mende bat joan da eta emakumeek ez dute erraza sorkuntza bulkadari bide ematea. Are gehiago horretarako txoko bat izatea. Eta zer esanik ez ogibide bihurtu nahi badute.

«Astoa jarrita eta margoak mahaian eduki behar dituzu. Ezin duzu egunero jasotzen ibili. Lokala edukitzeak horretarako aukera ematen dizu»

GARBIÑE ARRIETA

«Gaztetatik garbi izan banu, agian margotzen jarraituko nukeen; probatzea pentsatu nuen 50 urterekin»

«Badakizu zenbat urterekin hasi nintzen margotzen? 50 urterekin!», argitu du Garbiñe Arrietak (Zumaia, 1965), hizketan hasi bezain pronto. «Txikitan asko gustatzen zitzaidan arkatzez eta ikatz-ziriaz marraztea. Noizbait margotzen probatuko nuela esaten nion nire buruari. Oxford-en ikastaroaren iragarkia ikusi eta Ander Hormazurirekin hasi nintzen», gogoratu du.

Mundu bat ireki zitzaion. «Intuizioz egiten dut. Itsasontzia izan zen lehenengo egin nuena eta ondoren aitona bat eta Marilyn Monroe etorri ziren. Niretzat zailena koloreen teknika da. Aurpegiak ditut gustukoak. Hori da nirea!».

Izurrian etxean aritu zen margotzen. «Ondoren lokal zahar bat alokatzea erabaki genuen nuen lagun batek eta biok. Astoa jarrita eta margoak mahaian eduki behar dituzu. Ezin duzu egunero jasotzen ibili. Lokala edukitzeak horretarako aukera ematen dizu».

Obretan dago lokala eta ahal bezala moldatzen da orain. Udalei eskaera luzatu die: «Lokalak jartzea herritarrentzat bertan, elkarrekin, lana egiten ahal izateko. Ikastaroetan ordutegi zehatza daukazu...».

Hamabost erretratu egin ditu denera. Ardurarik?

«Erretratu bat entregatu behar dudan bakoitzean oso urduri egoten naiz», aitortu du. Miraririk ezin egin. «Photoshop bezalakoa da margotzea», dio. Pertsonaren esentzia harrapatu nahi izaten dut. Baina ilea ez dakit nolakoa nahi badu, egingo diot», barrez.

BEGIRADA

Adinekoak dira gehiago, gazteen artean ez dago ohiturarik. «Erretratua bukatzean ni seguru nago antza baduela, baina enkargatu didanak bera den konfirmatzea nahi izaten dut, ea lortu dudan harrapatzea. Begirada da ehuneko handiena erretratuan. Detaile txikienarekin asko aldatzen da erretratatuaren aurpegia, itzal huts bat nahikoa da, kontuz ibili behar da. Bezeroaren aurpegian poza ikusten dudanean 'asmatu dut' pentsatzen dut. Pertsona hilda dagoenean bai, errespetua ematen dit».

4-6 aste behar ditu enkargu bakoitzerako. «Lehenik, arkatzez pertsona bakoitzaren aurpegiaren proportzioak marrazten ditut. Ez diot proportzio unibertsalari kasurik egiten, errealarri baizik». Badu pena, «lehenago hasi ez izana, teknika menderatzeko».

Erroka berria du. «Familia osoaren erretratua eskatu

didate. Bost pertsona izanik, aurpegiak txikiagoak dira, orain artekoak lehen planoak izan dira», dio.

Etxean jartzeko moduko tamainak egiten ditu, oso handiak ere ez. Denetariko egunak daude. «Batzuetan diozu 'hobe ez banintz hasi gaur'. Aurrez egindakoa izorratu besterik ez duzu egiten».

Deskonexioa datorkio pintzelak eskuan hartzen dituenear. «Lauzpabost ordu ziztu bizian joaten zaizkit!».

LANEAN HASI BEHARRA

Herriko loteria saltzaile bezala ezagutzen dute zumaiarrek. «1986an ireki nuen loteria saltokia. Familiako zirkunstantziek bultzatuta, lanean hasi beharra izan nuen 19 urterekin». Ordurako Zarauzko Artezaleak elkartearen moda diseinua ikasten hasia zen. «Ikaragarri gustatzen zitzaidan! –begiak dir-dir–. 18 urte nituen, ikastaro erdia egin nuen, lanean hasi nintzen eta han amaitu zen. Marrazkiak Sanz Enea kultur etxean egon ziren ikusgai».

Zumaiako Oxford erakusketa aretoan erakutsi zituen erretratuak 2021ean. «Herritarrak enkarguz lanik egiten nuen galdezka hasi zitzaidan». Hurrengo erakusketa noiz? «Momentuz ez, iritsiko da agian».

Negozioa eta familia aurrera



Andoni CANELLADA | FOKU

ateratzen –hiru seme-alaba– eman ditu urteak. Orain profesionalki margotzera dedikatzea planteatu duen galdetu diogu. «Lana uztea oso zaila da. Presio handia izango litzateke pinturatik bizitzea. Orain biak uztartzen ditut, lankideei esker dendan erlaxatuago nago-eta.

Gizonezkoa izan banintz asti gehiago izango nukeen nire gauzetarako. Gaztetatik garbi izan banu, agian margotzen jarraituko nukeen; probatzea pentsatu nuen 50 urterekin».

ABENTURA POLITA

New Yorken bizitako abentura kontatu digu.

«Bertatik idatzi zidan pertsona batek, Instagramen nire lana ikusi eta gustatu egin zitzaiola. Nahi banuen Evac galeriarekin harremanetan jarriko ninduela. Iruzurra zela pentsatu nuen. Etxean esan nuen eta 'kontuz, ama!' esan zidaten... Oso ausarta naiz,

«Serio itxura hartzen joan nintzen, eta urduri jartzen hasi. New Yorkeko galeria ni erakusketa batera gonbidatuz? (...) Posta elektronikoz bidez managerrarekin aritu nintzen, galeriak existitzen zuela konfirmatu nuen, baina hara iritsi arte ez nengoen %100 seguru»

baina inoiz lurraren kontra joan izan naiz, gero», irribarrez. Ikertzen hasi zen. «Serio itxura hartzen joan nintzen, eta urduri jartzen. New Yorkeko galeria ni erakusketa batera gonbidatuz? Instagramen milaka jarraitzaile dituzten margolariak dira, euren artearen kalitatean sartu gabe. Horretara jarrita daukate jendea. Ingurukoek eta ezagunek jarraitzen naute ni. Posta elektronikoz bidez managerrarekin aritu nintzen, galeriak existitzen zuela konfirmatu nuen, baina hara iritsi arte ez nengoen %100 seguru. Facebooken galeria aipatzen zuen pertsona bat aurkitu nuen eta idatzi egin nion. Ni bezala erakusketan parte hartu izan zuen. Harremanetan jarri nintzen egia ote zen galdetuz. Baietz, joateko, oso esperientzia ona izan zuela erantzun zidan. Horrek eman zidan bultzada», jarraitu du.

Familiako beste hiru emakume berarekin joatera animatu ziren. «Sekulakoa izan zen! Asteburuan zen erakusketa eta bost egun egin genituen hirian. Sortzaile asko zegoen bertan. Lau aukeratu zituzten eta han joan ginen!».

Hasteko, koadroak eskatu. «Etxeetan zeuden. Ondo enbalatu eta badaezpada fakturatu gabe eraman genituen. Ardura handia sentitu nuen, 'dagoeneko ez dira nireak'». Benetako artista sentitu ote zen galdetuta, baietz, barrez. Instagramen (garbi_arrieta) eta Facebooken (Garbiñe Arrieta) kontuetan ikus daitezke bere lanak.

ANA GONZALEZ

«Margoak salduko banitu, lana utziko nuke, baina zaila da artetik bizitzea»

Itsasoa aurrez aurre duen etxean hartu gaitu, koadro artean. Urte asko dira Ana Gonzalez (Zumaia, 1968) Zarautzen bizi dela.

Seme-alabak aurreko etxetik joatean ikusi zuen espazioa lortzeko aukera. Alabaren logela izandakoaz “jabetu” zen. Ondoren, orain bizi diren etxean, sukalde ondoan egin zuen txokoa. Ordurako erabakia zuen hainbeste urtez barruan isilarazitako sorkuntza irrikari ahotsa ematea.

Urte luzez egon zen margotu gabe, hemezortzi urtez. «Olio margotzen nuen eta haurrak jaiotzean

trementina eta agoarrasa bezalako materialak nahiago izan nuen etxean ez erabili. Eta alboratu egin nuen».

Seme-alabak jaio ziren arte zaletasun bezala hartzen zuen. «Margogintza figuratiboa egiten nuen eta sentitzen nuen ez nuela ikusten nuen hura margotu nahi. Banekien figura errealistak sortzen, baina ez nuen gustuko».

Haurrak hazi zirenean ekin zion berriz. 2014a zen. «Lagun batek aspaldiko margoak ikusi eta ‘ezin duzu utzi’, esan zidan. Berari esker hasi nintzen, ez nintzen ausartzen...», dio.

«Garbi, oso garbi nuen Arte Ederrak ikasi nahi nuela. Banekien ikasketetan horretarako bakarrik balio nuela. Baina amak ez zidan utzi, ez zion etorkizunik ikusten. (...) Oso-oso gogorra izan zen»

Gonzalezek barruan du arantza. «Garbi, oso garbi nuen Arte Ederrak ikasi nahi nuela. Banekien ikasketetan horretarako bakarrik balio nuela. Baina amak ez zidan utzi, ez zion etorkizunik ikusten. Aita hil berria zen, ez nion amari beste disgusturik eman nahi, eta ez nuen egin. Onegia izan naiz. Oso-oso gogorra izan zen. Ez dut inoiz gidatuko ninduen inor izan alboan. Garai hartan irakasleren bat izan banu, beste modu batean garatu izango nukeen nire sorkuntza. Emakumeok gehiegi pentsatzen dugu eragozpenetan, gizonek ez. Irmoagoak dira nahi dutenaren alde egiteko orduan», egin du hausnarketa.

«Baliabiderik ere ez genuen. Gaur egun dagoen informazioarekiko sarbidea sekulakoa da. Museoetara oso bisita gutxi egin nuen eta ez nuen inolako laguntzarik izan».

Noraezean sentitu zen. «Nire bikotekidearen aitak gomendatu zidan zuzendaritza idazkaritza ikastea, eta halaxe egin nuen. Esportazio alorrean egiten dut lana enpresa batean, nahiz orain bajaran nagoen», argitu du.

Zarauzko Artezaleak elkartean Manu Muniategiandikoetxearekin hasi zen ikasten 2016an. «Terapia da niretzat. Ez nekien nondik hasi! Nik galdetu aurretik argitzen dizkit nire zalantzak».

ANSEL VALLEJO

«Gizonezkoa izan banintz gauzak beste era batean gertatuko ziratekeen»

Arteak bizi du Ansel Vallejo (Zumaia, 1962). «Izan ditut margotu gabeko garaiak eta beti familia kontuengatik izan dira. Baina banekien egunen batean margotuko nuela; nire zati da». Etxeko paretak bere lan ederrez jantzita daude. Paisaiak gehienak. Beste asko ditu, tokirik ezean, argia noiz ikusiko zain.

Haurra zela arkatzez eta ikatz-ziriz marrazten zuen. Erretratugintzan ere saiatu zen. «Marrazten nuen, baina ez nuen lortzen bolumena ematerik. 20 urterekin Francisco Hernandez margolari zumaiarrekin ikasten hasi nintzen. 24

urterekin ezkondu, seme-alabak izan, eta margotzeari utzi nion. Baina beti izaten nituen aldean kaiera txiki bat eta arkatza».

Ander Hormazurik margo-tailerra ireki zuenean, 30 urteak beteak zituen. «Marrazkiaren oinarria baneukan, neuretik sortzea zen gakoa. Urte asko eman ditut Anderren estudioan, babes handia eman dit».

Ondoren, Foronda Kultur Etxeko margogintza tailerrera joan izan da. Eskolengatik baino, lekuagatik. «Nik lasai egon nahi dut. Ez dakit eserita egoten. Agoarrasarekin borratzen dut zatiren bat,

berriz margotu... asko zikintzen dut. Ez naiz pintzel finekoa. Agoarrasa tantaka dela ari naizenean, gozatu egin nahi dut. Eta etxean ez nago lasai, usaina ere... Eta edozer gauza zikindu beldurrez aritzekotan, nahiago ez egin».

KOADROAK BERAK BIDEA

Mihise zuria aurrean. «Paseoan ibiltzen naiz eta buruan irudiren bat geratzen zait. Espatulaz hasten naiz, eta margoak bidean eskatzen didana erabiltzen dut; trapauek ere bai tarteka. Batzuetan ideia duzu buruan, hasi eta ez zaitu konbentzitzen. Koadro bera joaten zaizu zein bide hartu esaten. Nik nahi dudana mihisean ikusi arte», kontatu du. Etxeak badu bere arriskua. «Margotzeari utzi eta bazkaria egiten hastearena, arropa lixatzen... –esan du–. Benetan





Gorka RUBIO | FOKU

Taldekieekin, giro politean. «Bertan gaude interes bera dugulako eta elkarrekin hitz egin dezakegu», dio.

Pintura abstraktua egiten du orain. Geometrikoa tarteka, koloretsua. Hainbat serie ondu ditu. «Kolore paleta oso zabala eskaintzen dit. Eta olioia nahiago dut, akrilikoa plastikoagoa iruditzen zait». Osasun arazoengatik ia urtebete eman zuen margotu gabe, eta, Muniategiandikoetxeak aholkatuta, *collage*-an lehen pausoak eman zituen.

POZA ETA BAKEA

Pintatzeak poz eta bake handia ematen dio. «Gogobetetzea, gainerako pertsonen objektu bat

begiratzean ikusten ez dituzten irudiak ikusarazten ditudalako, irudi horiei entitate propioa emanez. Eta bakea, pintatzeko ekintzak, koadroa hutsik hastean erronka handia den arren, indarberritu egiten nauelako. Bukatu ahala, lasaitu egingo naiz. Koadroarekin bakarrik pasatzen ditudan orduak dira, eta ezartzen den lotura xurgatzailea da».

Lanbide bihurtzea? «Ikaragarri gustatuko litzaidake! Nire artelanak salduko banitu lana utzi egingo nuke, baina zaila da artetik bizitzea. Horretarako dirurik banu neure galeria irekiko nuke. Asko ekoizten dut, beraz, nahi dudanean berritu dezaket. Asko gustatuko litzaidake

erakusketaren bat egitea galeria batean, baina ez dut ate askorik jo, egia esan».

Hainbat lehiaketetan finalista izan da. Madrilen egon berria da, Mario Saslovsky V. Nazioarteko Sariketan azken aukeratuen artean izan baita. «Oso pozik nago, hirugarren aldia da aurkeztu naizena. BMWren sariketan ere, 2016an, 2.600 artisten artean aukeratu ninduten. 40 lan ziren azken hautatuak, bat nirea. Sekulako ilusioa egin zidan».

Ametsik? «Nire margoak baliorik badu, errekonozitua izatea». Serie berri baten hastapenetan utzi dugu, pozik. Interesatuek webgunean (www.anagonzalezart.com) aurki ditzakete bere lanak.

nahiko nukeena lokal bat edukitzea litzateke. Baina ezin diot gastu horri aurre egin».

Bide berriak ikertuz aritzen da, jolasti. Ontziek uretan utzitako isla margoa lurreraino erortzen utzita lortu zueneko seriea erakutsi digu. «Akrilikoa probatu nuen eta badut berriz hartzeko asmoa, baina azkar lehortzen da, eta niri margo hezea pintatzea gustatzen zait. Margotzeko era freskoago geratzen zaidala iruditzen zait olioia erabiliz. Berniz matea ematen diot gainetik, margotu eta 7-8 hilabete pasa direnean. Agoarrasak ere distira kentzen dio margoari. Badira linazi-olioa erabiltzen dutenak, nik ez». Betidanik izan du eskulanetarako joera –josi eta puntua ere egiten du–, baina margoa du gustuko. «Egun batzuetan ordu luzez egon naiteke, eta

asebeteta geratzen naiz».

Ikastea gustukoa ez eta lanean hasi zen. «Irakasleek esku ona neukala-eta, Delineazioa ikastea gomendatu zidaten. Etxean ez nuen dirua soberan ikusten eta ikasketak utzi nituen. Gurasoek pena hartu zuten».

LAN GOGORRAK, BATZUK

Denetarik egin du. «Kontserba lantegian, haurrak zaintzen, etxeko langile bezala, inkubazio enpresan, Frantzian mahats-bilketan, hiltegian, hotelean zerbitzari eta logelak garbitzen... denetarik. Lan gogorak izan dira batzuk. Gaur baino errazagoa zen lana aurkitzea, baina ikasketarik gabe ez zenuen hainbat lanbidetara sarbiderik».

«Orain gutxi arte izan dudana lan-enkargatu batek zera esan zidan ‘zer egingo duzu gure lana onartu ezean?’.

Ez dut sekula arazorik izan lanik aurkitzeko, ahal izan dudana moduan moldatu naiz. Lan batzuk ez ditut kotizatu, beste batzuk bai, baina ez naiz ezeren damu», dio.

Garbi du: «Gizonezko jaiotzean izan banitz gauzak beste era batean gertatuko ziratekeen. Edo dirua daukagu etxeaz norbait arduratzeko zuk margotzen duzun bitartean, edo bestela zuk zeuk egin behar duzu. Eta egunak 24 ordu ditu. Nik beti esan izan dut gizonezkoa izan banintz gauzak beste era batean gertatuko ziratekeela».

Orain gauzak desberdin ikusten ditu. «Gu bi ahizpa gara eta ez da desberdintasunik egin, baina beste etxeetan bai. Lanetik ateratakoan gustukoa egiteko askatasuna zuten mutilek. Ez zuten etxeko lanik egin beharrik, guk bezala.

Larunbatetan ere etxeko zereginetan aritzen ginen, ez geneukan denbora askorik geuretzat. Orain desberdina da, nire seme-alabekin ikusten dut», adierazi du.

2016an Oxford aretoan egin zuen erakusketa. «Erakusketa bat egiteko gogoia neukan eta egin nuen. Ezin naiz kexatu, erakusketa egin izan dudanean, jendeak ondo erantzun du, gustatu zaie, eta herritarrek beti egin izan didate enkarguren bat». Arte galerietako aterik ez du jo. «Ez dakit neure burua saltzen, ez nabil sare sozialetan.... Tabernetan eta bai, erakutsi izan ditut lanak».

DIRUA ETA DENBORA

Profesionalki margogintzara dedikatzea oso zaila ikusten du. «Asko dira artistak, izena dutenak. Horretarako asko mugitu behar zara.

Erakusketak egiteak diru eta denbora asko eskatzen du. Nik Oxforden 30 margo erakutsi nituen eta, orain beste erakusketa bat egin nahiko banu, gai berrien eta estilo berrien bila hasi beharko nuke, ez dut betikoa egin nahi», kontatu du.

«Horretara bakarrik jarri ahal izango banu eta dirua izan, erakusketa egingo nuke bizpahiru urtetik behin. Baina ezin dut. Lanik gabe geratu nintzen eta, bilobak direla, beste kontu batzuk direla, ez daukat asti askorik».

Ahal duenetan artista handien obrak ikustera joaten da. «Louvre 'La consagración de Napoleón' Jacques-Louis David-en koadroa ikusi nuen. Sekulako tamaina dauka. Nola lortu zuen perspektiba hain dimentsio handian? Miretsi egiten dut duen gaitasuna. Ikaragarria da!», amaitu du.

EPAILE ETA GAI-JARTZAILEAK

Zer ohar hartzen dituzte koadernoan? Nola betetzen dute gaien zakua?

📁 **BERTSOLARITZA** / Maider IANTZI GOIENETXE

Bertsolari batekin parkean izandako elkarrizketa batetik sortu zen erreportaje hau. Urte pila bat daruma txapelketan parte hartzen, eta horrek eskatzen duen ahaleginaz galdetu nionean, garbi erran zidan: «Gurea baino, epaile eta gai-jartzaileena da meritua. Guk hartzen ditugu txaloak, baina haiek ere sekulako lana egiten dute».

Esker txarrekoena epaileen lana da. Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa (1970, Bilbo) zeregin horretan dabil 2006tik. Hala azaldu du: «Puntuazioa espero duena bada, asmatu duela pentsatuko du publikoak. Norberari iruditzen zaio bere irizpidea dela onena. Epaile onena epaile diferenteen batuketa da. Gure meritua eta gure akatsak konpentsatuko dira. Arbitroaren lana ona da inork aipatzen ez duenean. Baina hor egon da. Esker txarrekoa da horregatik. Fin ibili denean ez diote esango».

Txapelketak hasi zirenean hiruzpalau adituk epaitzen zizuten. Gero, talde bat sortu zen, gizon nagusiz osatua. Pixkanaka, gaurko argazki zabalgara heldu gara. «Transmisioa ondo egin da, eta gazteak eta emakumeak ari dira bertsoan, gaiak jartzen eta epaitzen», nabarmendu du Gernika-Lumon bizi den epaileak.

LANPARA, PAPERETA ETA BOLIGRAFOA

Publikotik aparte, lanparen argitan esertzen den talde hori da epaileena. Bizkaiko txapelketan, sei lagun aritu dira orain arte, tartean Aurrekoetxea, eta fase berrian, gaur bertan Berrizen hasiko den finalaurrekoan, bertze sei sartuko dira. Koadernoak, boligrafoa

Ez sobera emozionatu, epaileek ez digute zirriborrotzen dituzten zeinu positibo eta negatiboak, errima eta oinak, galdera ikur eta erlojuen marrazkiak ikusten utzi. Gai-jartzaileak betetzen ari diren zakuan arakatzetik ere ez dugu izan. Iñaki Aurrekoetxeak eta Maialen Belarrak haien lanaren sekretu batzuk kontatu dizkigute, ordea.

eta paperak izaten dituzte mahaian. Batzuek kalkulagailua ere bai, baina gernikarrak ez du horren beharrik: matematika irakaslea da eta erraz egiten ditu kalkuluak.

Positibo eta negatiboak, errima eta oinak, galdera ikur bat, erloju bat –pentsatzen denbora eman duela adierazteko– edo bi erloju, halakoak marrazten ditu koadernoan.

«Trebakuntza saioak egiten ditugu, asko txapelketa aurre-

tik, eta urte osoan ere bai. Gai batzuk bereziki lantzen ditugu. Adibidez, genero ikuspuntua eta goitik beherako umorea, indarrezko posizio batetik mendeko batera egiten dena. Txapelketetako saio batzuk entzuten ditugu: bakoitzak puntuatu, eta gero gure arteko diferentziak aztertzen ditugu. Alde nabarmenak badaude, horiei buruz hitz egiten dugu. Agian norbera konturatu ez den xehetasunetan erreparatu

Maialen Belarra, bere herrian, Donezteben, GAUR8rekin egindako elkarrizketan. Hurrengo orrialdean, Iñaki Aurrekoetxea, Gernika-Lumon.
Jagoba MANTEROLA - Jaizki FONTANEDA / FOKU



dute beste batzuek, edo beste era batera ikusi dute».

ESKUAK DARDARKA

Azken bi txapelketa nagusietatik hona bertso eskoletan jakin nahi izan dute nola epaitzen duten, eta Aurrekoetxea azaltzera joan izan da. «Batzuk herrialdeko epaile taldean probatzera animatzen dira eta orduan konturatzen dira ez dela batere erraza. Publikoan zaudela iritzia ematea bai, baina papera eta boligrafoa hartu eta puntuatzean, eskuak dardarka hasten zaizkizu».

«Guri leporatzen digutena denek egiten dute: Oitak 10era 5ak eta 6ak jartzen dituzte». Baleko bertsoa hartzen da oinarri, aparteko meriturik eta akatsik ez duena. Hortik gora edo behera puntuatzen badute, argudiatu egin behar dute zergatia.

10eko batzuk jarri ditu. «Gogoratzen ditut, Bizkaiko finaltan edo buruz burukoetan, bertsolariak onena ematen ari direnean, estasi bat dago, txapelera bidean daudenek burua zukutu dute. Neurri luzean ari dira, sekulako pelikulak kontatzen».

Suspentsoak ere oroitzen ditu. Txapapera kontzeptua erabiltzen dute epaileek 5etik beherako bertsoentzat. «Ez du ezer esan, ez dio lagunari erantzun, gainera akats gramatikal bat egin du». Nola txapapera?, asaldatzen dira batzuk. «Bai, ondo erantzun dako 5,5 puntuko bertsoetatik bereizi behar ditugu. Abanikoa zabaltzen saiatzen gara, bai goitik eta bai behetik».

Gertatu izan zaio saioa berriro entzun, kideekin komentatu eta ohartzea akats bezala hartu duena ez dela hala. «Hortik ikasten duzu eta badakizu zigortzen duzunean

ziur egon behar duzula, horregatik zalantza kasuan elkarri begiraten diogu». Gainera, bertsolariak jarrera du bere alde: «Mikrofono aurrean jarri da, gaia entzun du, saiatu da; 2 puntu baino gutxiago ezin zaio jarri». Poto argia bada, 3 puntu kentzen dituzte.

OBJEKTIBOA ETA SUBJEKTIBOA

Bertsoa komunikazio ekintza bat da eta testuingurua garrantzitsua da: bertsolaria non eta noiz ari den kantari, eta zer pasatu den azkenaldian. Saioko giroak ere eragiten du.

Epaileek bertsoa entzun, eta bost-hamar segundoan eman behar dute puntuazioa. «Oso zaila da asmatzea. Ezinezkoa. Hurbildu ahal gara, baina asko subjektiboa da». Objektiboa da irizpideetan idatzita dagoena; subjektiboa, bertze guztia. «Ze gozo kantatu duen, zelako ironia fina! Askok gustatu zait», pentsa dezake batek, baina agian ondokoak ez du ulertu.

Gaia, hizkera, neurria, erri-ma eta oinak, doinua, testua, baliabide paratestualak eta denbora hartzen dituzte aintzat baloratzean. Euskal Herri mailan, 2017ko txapelketa nagusiaren aurretik lana egin zuten epaile taldean, gida pedagogiko bat baino, izan zedin neurgailu bat, zer den onargarria eta zer ez.

Bertsozale.eus webgunean daude kontsultagai epai irizpideak. Etengabe berritzen dira, bertsolarien proposamenetara egokituz. Adibidez, 2005 inguruan baliabide paratestualek garrantzia hartu zuten: «Bertso saioetan gero eta gehiago erabiltzen ziren pantailak eta gehiago ikusten genituen bertsolariak. Orduan, geldirik kantatzetik gehiago mugitzera igaro ziren. Keinuak egiten dituzte bertsoa laguntzeko, eta

«Norberari iruditzen zaio bere irizpidea dela onena. Epaile onena epaile diferenteen batuketa da. Gure merituak eta gure akatsak konpentsatuko dira», azaldu du Aurrekoetxeak

Bertsozale.eus-en daude epai irizpideak. Etengabe berritzen dira, bertsolarietara egokituz. Adibidez, orain lerro aldatzeak erabiltzen dituzte batzuek errimatzeke

epaileok begiratu egin behar diegu. Publiko zabalarentzat balio du? Hori da inportantea. Gu publikoaren parte gara. Jasotzen eta sentitzen dugunari nota bat ipintzen diogu. Bertsozale adituak gara, ardura bat dugunak».

Bertsolarien egiteko molde berriak agertzen dira. «Esate-

rako, lerro amaieran esaldia amaitu beharrean esaldia hurrengo lerroarekin jarraitzea, baina lerro amaiera horretan errima dago. Aurreko txapelketa nagusian askok jokatu zuten horrekin, aukera gehiago ematen zielako. Arriskua dauka, ez baduzu ondo komunikatzen, epaileak ez du ondo hartuko, ezta publikoak ere. Ondo eginez gero, merituz izan daiteke».

Azken urteetan lerro aldatzeak erabiltzen dira errimatzeke. «Neurriak ez du eskatzen eta hor ere errimatzen da. Politza geratzen da; espero ez dugun hoshidetasuna beti da baliabide literario bat esana indartzen duena».

2019an ikastaro bat egin zuten, eta epaile berriak pres-

tatu zituzten. Martxa hartu dute, eta finalaurreko eta finalak epaitu nahi dituzte. Aurrekoetxeak ere hori nahi zuen hasi zenean, eta orain bere burua ikusten du alhora egin beharrean.

Bertsozalea da epailea baino lehen. Bertsoak idazten segitzen du eta bat-batean ere aritu zen. «Ondo pasatzen nuen bertso bazkari eta afarietan. Txapelketan asko sufritzen nuen. Ikusten dut beste batzuek nola gainditzen duten egoera hori, nola altxatzen diren. Horren lekuko izatea, nota jartzea, bada oso protagonista izan barik mugimendu horren parte izatea; horregatik sartu nintzen. Sentitzen zara beharrezko lan bat egiten, gertutik bizi duzu, gozatzen



KOMUNEKO ETA AULKIKO ZENBAIT BITXIKERIA

Epaileek publikoarekin ez nahasteko agindua izaten dute saioaren egunean. Bizkaiko aurreko txapelketako finalean, epaile zela komunera joateko beharra izan zuen Iñaki Aurrekoetxeak. «Ganbarako lana erabiltzen dugu horretarako. Barruan nengoela, Amets Arzallus sartu zen. 'Aupa Amets!', esan nion. 'Aupa!'. Biak zutik komunean, eta saioa komentatzen hasi zitzaidan bertsozaleetik bertsozalera. Eta nik: 'Bueno, bai, zera...' Ezin nion jarraitu, gustura hitz egingo nuke, baina ez zen momentua. Beste egun batean, han aurkitu nuen Amets. 'Barkaidak', esan nion, 'epaile nintzen'».

Komunarekin lotuta daude bertso saioetako istorio aunitz. Estutasunak ere izaten dira. Gertatu izan zaie epaileei beherakoarekin bueltaka ibili behar izatea.

Nafarroako gai-jartzaile eta aurkezle taldean, berriz, oholtzan haientzat paratutako aulkiarekin dute borroka. Maialen Belarrak kontatu digunez, ttiki samarrak dira gai-emaile gehienak eta sobera altu gelditzen zaie eserlekua. Zutik egoteko denbora gehiegi da aurkezlearentzat, eta han ibiltzen dira eskalatu eta aulkian orekari eusten. Txaloekin du zerikusia Belarrak kontatu digun bigarren bitxikeriak. Txalotzeko ohitura du, baina aurkezleak ezin du txalo jo agurretan ez bada, eta pasa izan zaio ohartu gabe hasi eta gelditzea. Barne-txaloak jotzen ditu.



Maialen Belarra, txapelketa batean, bertsolari bati gaia ahalik eta argien ematen.
Gari GARAIALDE / XDZ

duzu bertso onak entzunez, nahiz puntuatzeko ardura izan eta nekatu, bertso oro arretaz entzuten».

Ez da beti sentsazio onarekin gelditzen. «Badira saio batzuk errazak epaitzeko: bertso onak eta txarrak egon dira, oso ondo bereizi duzu zer pasatu den eta emaitza oso argia da. Besteetan, ordea, zer esan duten galdetzen diozu zure buruari. Akatsak nabarmenagoak direnean merituak baino, bertsolariak ere ez doaz pozik. Agurtzen dituzu, eta batzuk triste ikusten dituzu, besteek txarto begiratzen dizute».

Giro polita dute epaile taldean, bai Bizkaian eta bai Euskal Herrian, eta horrek aunitz laguntzen du. «Gehien baloratzen dudana hori da, euskal herrietako jendea ezagutzea».

OREKAREN BILA

Maialen Belarra Eneverreagak (1992, Doneztebe) gauza bera erran digu Nafarroako gai-jartzaile taldeaz. Bera ere ttikitatik ibili da bertso munduan

eta zaletasuna baino gehiago da berarentzat. Epailea presarik gabe mintzatu zaigu, gogotsu, eta gai-jartzaile eta aurkezlea berdin. Kafe luze bat hartu dugu, eta argazkilaria ere gelditu da, jakin-minez.

Nafarroako txapelketa ere aitzinera doa, gaur jokatu da bigarren finalaurrekoa Agoitzen. Gai-jartzaile taldean 11 lagun dabilta. Horietako zortzi elkartzen dira asteroko bileran, eta hiruk idatziz bidaltzen dituzte proposamenak. Bost, aurkezle ere aritzen dira.

Adin desberdinetako jendea dago eta gehienak emaku-

«Txapelketa erakusleiho bat da eta badaude gai batzuk atera behar dutenak. Zoritxarrez, gauza horietako asko serioak dira. Saiatzen gara, halere, tonu dramatiko hori ez ematen»

«Errazago sortzen ditugu hausnarketarako gaiak umorezkoak baino. Plaza aunitz egin dituen gai-jartzaileak joera handiagoa izango du umorerako, plazan presenteago dagoelako»

meak dira. «Bakoitzak gure izaera dugu, baina gaiak ez daude horrekin lotuta. Ariketa bakoitzeko formatua adostua dagoenez, nahita sortzen dira gai mota batzuk: hausnarketara bideratuak, umorezkoak... Egia da nik gehiago kontrolatzen badut hezkuntza mundua, gai gehiago aterako zaizkidala hortik, baina saiatzen gara gizarteko puntu guztiak ukitzen, ez bakarrik norbere bizipenekin lotutako gaiak». Euskara irakaslea da Belarra.

«Bilerak hagitz interesgarriak dira. Etxerako lanak eginda joaten gara. Badugu zaku deitzen diogun dokumentu bat eta gaiak sartzen ditugu. Bileretan lehenbiziko egiten duguna da astero sortu ditugun gai horien errepasso bat. Filtroa pasatzen diogu gai bakoitzari: funtzionatuko du? Agian ariketa horretan ez, baina bihurtzen ahal dugu ganbarako gai? Ez bazaigu iruditzen ematen ahal duenik, kendu egiten dugu».

Behin ariketa bakoitzeko gai egokienak aukeratuta, hurrengo lana gai horiekin saioa osatzea da. «Dimentsio askotako oreka mantendu behar duzu: adibidez, zortziko handiaren barrenean sortu badituzu hiru gai, horien arteko oreka; bertze saioetan sortuko diren zortziko handi horiekin oreka. Zaila da askotan lehenengo saioa egiten dugunean, justu ditugu gaiak hurrengo saioa egiteko, eta azkenari buruz ez dakigu deus. Eta gero, bertsolari bakoitzak kantatu behar duen ariketa guztien arteko oreka. Oreka taula deitzen diogu. 1 zenbakia duena izango da lehenengo ariketan abokatu, gero suhiltzailea, hurrengoan semea edo alaba... Ez dala izan bi aldiz guraso. Oreka horrekin asmatzea da gako».

Bertsolarien aldetik desadostasunen bat ailegatzen zaie-nean, aunitzetan oreka faltagatik izaten da.

Txapelketan saio bakoitzaren aitzinetik zozketa bat egiten da, orduan ezin dute jakin sortzen duten gai bakoitza no-rentzat izanen den. Txapelketaz kanpoko edozein jaialditan bai, gai gehienak pertsonaltuak izaten dira. Baina txapelketan zaku orokor bat sortzen dute eta hortik tokatuko zaizu bat edo bertze.

ZILEGI ETA EROSO

Belarrak hirugarren txapelketa du Nafarroan gai-jartzaile taldean. Iaz Euskal Herrikoan ere parte hartu zuen. Gaiak aunitz aldatu eta zorrotz dirrela azaldu du: «Gaiak jartzekoan, diskurtso batzuk bilatzen dira. Adibidez, 'Palestatatik ihesi zoazten bi lagun zarete' jartzen badugu gai bezala, afera sartzen da hor, zer zilegitasun ote dugun guk halako egoera bat bizitzen ari den norbaiten azaletik kantatzeko. Ikuspuntu aldaketa bat egon da. Hemen nago, Gazaren aldeko manifestazio batera joango naiz, eta nire egoeratik kantatuko dut».

Buelta aunitz ematen dizkiote horri, nola planteatu gaiak zilegitasun hori errespetatzeko. Gero, aunitzetan ez da lortzen. Gauza bera gizon baten emakume baten azaletik abestean, eta alderantziz. «Gauza batzuk zaintzen saiatzen gara, gero eta gehiago. Erosotasuna ere kontuan hartzen dugu. Saio konkretu batzuetan bertsolaria gai baten aitzinean deseroso sentitzea bila dezakezu, horrek barrenean zerbait mugitzen ahal dizu eta horrekin bueltaka gelditu. Baina hori da gai-jartzaile baten lana? Edo eroso eta gus-

tura sentiarazi behar du bertsolaria? Batzuetan bultzatuko du pixka bat hausnarketa batzuk egitera eta bertze batzuetan ez hainbertze».

Kontuan izaten dute zer den politikoki zuzena eta zer den publikoak babesten duena ere. «Badakizu israeldar baten paperean jartzen duzun pertsona batek zailago izango duela publikoarengana ailegatzea, polizia baten roletik kantatzen duenak bezala. Hor ere oreka behar da. Diskurtso batzuk eginak daude, bertze batzuk, ordea, zerotik eraiki behar dira. Gainera, konbentzitu behar duzu erraten ari zarena ongi dagoela, nahiz eta zuk ez hori pentsatu».

BIDEAK IREKI

Bertsolariak gai bat aditzen dutenean, burua martxan hasten zaie, eta batzuetan lehenbiziko etortzen zaienarekin kantatzen dute. Bertzeetan, pentsatzen dute ideia bera izanen dutela bertzeek ere, hori delako biderik zuzenena, eta bertze buelta bat ematen diote. Gai on batek bide bat baino gehiago izan behar ditu.

Ganbarakoan, bertsolariak gai beraren inguruan kantari aditu behar ditu publikoak eta gai bat hagitz itxia bada, sei aldiz entzungo ditu gauza berari buruzko hiru bertso. Bileretan, gai batek zer bide izan ditzakeen aztertzen dute. Bost helduleku ikusten badituzte, aitzinera egiten dute gaiarekin, baina denei etortzen bazaie, adibidez, banatu den bikotearen rola, agian ez da egokia.

Gai batek funtzionatzen duen ala ez erabakitzeko, ordubete eman dezakete buelta eta bueltaka. Badituzte gaiak kanporaketen aurretik sortutako zaku horretan zeudenak, gerorako utziak, orain

arte iritsi direnak. «Ai, agian ez da hain ona», pentsatzen ahal dute, beharbada gai bera hamaika aldiz irakurtzeagatik.

Formulazioa ere zaintzen dute, inori ez biderik ixteko, ez izateko batek zortzi argudio eta bertzeak bi. Gaiko zatitxo bat kenduta, agian aukerak zabalitzen dituzte.

Generoa, adibidez, ez dute markatzen, ez bada hori bilatzen dutela zerbaitetarako. Adibidez, «17 urteko alabak erran dizue beldurra duela etxera bueltatzeko momentuan». Gainontzean, senideak badira «anai-arrebak, ahizpak, anaiak» agertuko da gaian, eta bertsolarien arabera aukeratu dute. «Aita» eta «ama» hitzak saihestu eta «guraso» erabiltzen dute. «Seme-alabak» orde, «umeak» edo «haurrak».

Umorearen kontzeptua ere aldatzen ari da. «Garai batean egiten ziren txiste batzuk, gorputzari buruzkoak adibidez, mingarriak izan zitezkeen, eta helburua zen bakarrik txistea egitea. Publikoak irri egingo zuen, baina jakin nahiko nuke ondoko bertsolariak zer sentituko zuen. Orain errespetu gehiago dago».

TALDE LANA

Taldean giro ona izatea funtsezko ikusten du, erabaki aunitz hartu behar direlako. «Bakoitzak badaki zein gai sortu dituen, baina taldean erreparatzen ditugunean ez dakigu bakoitza zeinena den. Zure imajinario eta ilusio handiz sortu duzun gai horrek agian ez du balio. Prest egon behar duzu bileran aditzeko edo ikusteko ez dela hain ona».

Iritzia lasai adierazteko espazio bat da. «Badakizu ez direla haserretuko edo ez dutela deus gaizki hartuko. Helburua ez da bertzearen lana kritika-

«Gai-jartzaileok ardura dugu, baina nola dabilzan erakutsi behar dutenak bertsolariak dira. Urduritasunerako eskubidea eurei utzi, eta lasaitzeko pertsonak izan behar dugu»

«Bukaeran, aditzea eta, behar badute, animatzea dagokigu. Bertze egun batean galdetuko diegu gaiez. Sarri momentuan erraten digute: 'gaiak onak, eskerrik asko!'»

tzea, elkarrekin bertso saio polit bat osatzea baizik».

KEINU KONPLIZEA

Bertsolariekin konplizitatea izatea ere inportantea da Maialen Belarrarentzat. «Oholtzara igo aitzinetik esperoan daude, tentsio handia dago. Une horiek elkarrekin pasatzen ditugu. Pertsona ia biluzik dago, hauskor ikusten duzu. Espazioa utzi behar diozu emozioak kudeatzeko eta,

aldi berean, babes emozionala eman. Keinu bat aski izan daiteke. Bertsolariak eroso sentitu behar du zurekin. Gai-jartzailearen eta bertsolariaren artean lotura badago, errazagoa izango da ziurtatzea gaia ulertu duen, keinu batekin. Badago idatzi gabeko komunikazio harreman indartsu eta beharrezko bat nik baloratu eta eskertzen dudana». Une ttiki horiek aunitz balio dute berarentzat.

Iñaki Aurrekoetxea, bertso saio batean, kideekin batera bere zereginean kontzentratuta.
XDZ





Luixa Reizabal

EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea eta UEUko Psikologiako sailburua

Emakume ijitoen diskriminazio hirukoitza

Azaroaren 16an ospatuko da Araba, Bizkai eta Gipuzkoan Ijito Herriaren Eguna. Aitzakia horrekin, ijitofobiaren inguruan idaztera animatu naiz, urriaren 3an Donostian Kera Emakumeen Ijito Elkarteak antolatutako “Topaketa pedagogiko eta feministak Emakume ijitoekin” jardunaldian ikasitakotik abiatuta.

Gure gizarteak pairatzen duen gaitoxotasun sozialetako bat da ijitofobia. Ijito-komunitateari berariaz zuzendutako diskriminazioan datza, eta modu askotan islatzen da. Besteak beste, lana, hezkuntza edo etxebizitza eskuratzeko ijitoek izaten dituzten oztopoetan eta tratu diskriminatzailean. Topaketan parte hartu zuen emakume ijito batek, adibidez, «lapurtuko dute-lakoan» supermerkatuetan zinpeko zaintzaileengandik pairatu behar izaten duten jazarpena salatu zuen.

Halaber, pobrezian bizitzeak ekartzen duen diskriminazioa gehitu beharko litzaioke ijitofobiari. Izan ere, Topaketan aipatu zen moduan, ijitoek pobrezia maila altuari egin behar izaten diote aurre ijitofobiaren ondorioz. Hala, diskriminazio bikoitza jasaten dute ijitoek: batetik, ijitofobia eta, bestetik, klasismoa. Hori gutxi ez eta emakume ijitoek hirugarren diskriminazio bati egin behar izaten diote aurre: emakume izate hutsagatik jasaten dutenari. Hala, emakume ijitoek diskriminazio hirukoitza dute parean, ijitofobiaren, klasismoaren eta genero-diskriminazioaren biktima baitira.

Aniztasuna aberastasuna den mundu honetan, pedagogia feminista tresna boteretsua izan daiteke diskriminazio hirukoitz horri aurre egin eta genero-dis-

kriminazioaren, arrazakeriaren eta klasismoaren aurkako jarrerak sustatzeko.

Helburu hori lortze aldera, estereotipoak deseraikitzea litzateke lehen urratsetako bat. Izan ere, emakume ijitoak estigmatizatu egiten dira haiei buruzko estereotipoen bitartez. Adibide moduan, Ijitoen Elkarteak biltzen dituen Fakali federazioak “Topaketa pedagogiko eta feministak Emakume ijitoekin” jardunaldian azaldutako estereotipo batzuk aipatuko ditugu: ijito ez direnak baino marxistagoak direla; haien bizitzak eta gorputzak hipersexualizatuta daudela; ez dutela gizartean integratu nahi; ezkontzea eta ama izatea direla haien helburu bakarrak; analfabetoak direla; ez dutela etxetik kanpo lanik egiten; gaizkileak direla; gizarte-laguntzetatik bizi direla... Gizarteak bere egiten ditu estereotipo horiek eta, ondorioz, oztopo handiak jartzen zaizkie emakume ijitoei ikasketak, lana eta etxebizitza lortzeko, besteak beste. Gainera, askotan, beraiek barnerratu egiten dituzte estereotipoak, eta horrek, noski, eragina du haien bizitzan. Adibidez, mugatu egiten du emaku-

me ijitoek garatzeko eta ikasketen zein lanaren arloan aurrera egiteko duten motibazioa.

Pedagogia feministak hezkuntza-giro inklusiboa eta parekidea sortu nahi du, non baztertuta daudenak erdigunera ekarri eta ahots guztiak baloratu eta errespetatuko diren. Emakume ijitoen kasuan, generoaren, klase sozialaren eta etniaren arteko interseksionalitatea hartu behar da aintzat. Horretarako, emakume ijitoek dituzten berezitasunak eta beharrak ezagutu eta azken horiek asebetetzeko lan egitea da gakoa.

Halaber, funtsezkoa da ijito-komunitatearen kultura-ondare aberatsa aitortu eta merezi duen balioa ematea. Pedagogia feministak prozesu horretan lagun dezake, ijito-komunitatearen historia, kultura eta ekarpenak curriculumean txertatzea ekartzen baitu. Horrela, ikusezintasunari aurre egiten zaio, eta ijito-identitatea eta ijito izateak ekartzen duen harrotasuna sustatzen dira emakume ijitoengan.

Azken batean, pedagogia feminista tresna baliotsua izan daiteke emakume ijitoak ahalduztzeko eta ijitofobiaren aurka borrokatzeko. Estereotipoak deseraikitzean, diskriminazio hirukoitzaren aurka borrokari ekitean eta aniztasuna sustatzean, mundu inklusiboagoa eta bidezkoagoa eraiki dezakegu pertsona guztientzat, haien generoa, jatorria edo maila ekonomikoa edozein izanda ere. Payoek eta ijitoek elkarrekin komunitate guztiak errespetatuko dituen gizarte bidezkoagoa eraikitzen lagun dezakegu. Eta hori gauza handia da. •



REIZABAL



GUNETUZ
PSIKOLOGO EUSKALDUNEN SAREA
www.gunetuz.ueu.es

{ koaderno } **Xabier IZAGA**

Zer diren gauzak (eta nola kontatzen diren)

Tropa israeldarrek 450 jomuga terroristari eraso diete gaueko beste bonbardaketa batean". "Hamasen arabera, Gazako hildakoak 10.000 baino gehiago dira". Espainiako telebista publikoak emandako albisteak dira. Eskuineko, alegia, *facha* omen zen aurkezle batek bere albistegia amaitzerakoan esaten zuen: «Así han sido las cosas y así se las hemos contado». Telebista publiko horrek –eta ez horrek bakarrik– ez dute halakorik esango, baina antzera kontatzen dituzte gauzak. Ez dakit nola kontatzen dituzten pribatuek, ez naiz sintonizatzeraz ausartu.

"Gau bakar batean, 450 jomuga terroristari". Datu objektiboa. Duela astebete pasa, denera 11.000 «jomuga terroristari» eraso omen zien Israelek. Iturria, antza, inbertitzaile nagusien us-tea. Orduan Gazako hildakoak 8.000 pasa ziren, betiere "Hamasen arabera", edo susmopeko (alboko kalte) NBERen arabera. 400etik gora hildako, 50 errefuxiatu-eremu batean.

Baina zer egin lezake Israelek? Negoziatu? Egin ez duenik ezin egin –eta egin duenean, zerbait gaizki ateraz zaio berarekin negoziatu duenari–. Kontrakoa ondo

samar egin du, ordea: ahalegin guztiak negoziazioa bideraezina izan zedin, atzera bueltarik ez duen egoeraren bila. Ez du egin eta ez du egingo, ez duelako behar, «mundu librearen» sostengua duen artean.

Hamas, Netanyahu eta Israelgo enbaxadoreek esan digutenez, Isis edo Estatu Islamikoaren parekoa da. Esan nahi dute astakeriarik handiena egiteko kapaz dela. Eta esan dute mundu librearentzako mehatxua dela. Horregatik, Gaza alderik alde suntsitu beharra dago. Eta hori ondo dago Europako inbertitzaileen us-tez, baina bere arriskua ere badu.

Ursula Von de Leyenek beste 25 milioi iragarri berri ditu Gazako biztanleentzat, haien gaineko bonbarda-

ketak bultzatzen dituen aldi berean. Laster Gazako errefuxiatuak Europan hartzeko erabakia iragarriko ote du? Ukrainarrak baino askoz gutxiago dira.

Iaz Gaur8 honetako erreportaje batean irakurri nuen Ukrainako errefuxiatu bat Gazan bizi zela. Kieveko infernutik aterata, kontatu zuen oso harrera ona egin ziotela eta nahiko lasai bizi zela Zerrendan... Hara, egia, ezin dira Gazatik atera. Gazte ukrainarra bai, suerte pixka batez, baldin oraindik bizirik badago. Tira, horrela hobeto, ezta, Ursula? Imajinatu 400.000 edo milioi erdi palestinar Europan zehar eta Israel, Joeek eta zuk emandako «defentsa eskubidearekin», haien atzetik, milaka jomuga terroristaren bila. Eraso nuklearraren aukera hobeto pentsatu beharko luke, bere segurtasuna bermatze aldera.

Iaz Gaur8 honetako erreportaje batean irakurri nuen Ukrainako errefuxiatu bat Gazan bizi zela. Kieveko infernutik aterata, kontatu zuen oso harrera ona egin ziotela eta nahiko lasai bizi zela Zerrendan...

Duela lau aste pasa, bost bat egun ziren Israelen bonbardaketak hasi zirela, «beldur» nintzen nire zutabea larunbatean argitaratzerako nolabaiteko su-eten baterako akordioa lortuko ote zen. Nire arrazoi-menaren kontra, logika guztien kontra, topikoen kontra, lukurreriaren kontra eta gogoaren alde. Hauxe idatzi nuen: «Nahiago nuke, lerro hauek argitaratzerako, Israelen mendeku gosea baretuko balitz, edo baretuko balute», eta larunbaterako espero zen lurreko inbasioa sartu-irten batera mugatu zen. Baina bonbek beren orroari eutsi zioten, bizitasun berdinarekin edo handiangoarekin, batek daki. Biziak barra-barra itzaltzeko bizitasunarekin. •

Arraun klub bateko lokatzetatik baino, askotan gauzak hobeto ikusten dira goiko plano batetik. Ikusten duzu arrauna nola dagoen eta konturatzen zara desoreka bat dagoela. Arrauna osotasun batean jarraitzen dugunok, konturatzen gara krisi batean sartzean ari garela, eta ez bakarrik goiko ligan», Aitor Agirreren hitzak dira.

Izen asmatua da, anonimotasuna gorde nahi baitu. Arrauna hartzen ari den nora-

bat egiten baduzu azpira, oinarri, konturatzen zara urte batzuk atzera baino askoz lehiaketa gutxiago daudela beheko mailan. Arraun elkarte gutxiagok parte hartzen dute, krisian gaude. Emakumezkoetan azken urteetan arrauna indartu egin den arren, orain esango nuke egonkortu egin dela».

Bere hausnarketa bi puntutan oinarritzen du: «ekitatea eta iraunkortasuna». Lehenari dagokionez, arraunlari izandakoak uste du arrauneko goi mailako lehiaketa ez dagoela «orekatuta».

«Bi filosofia daude arraunean. Batzuk diruz jokatzeko dute, eta nolabait selekzio batzuk eratzen dituzte, ahalik eta harrobiko gutxien sartuta. Beste batzuk, ordea, harrobia dute oinarri trainerua osatzerako garaian, eta taldea indartzeko fitxaketak egiten dituzte, konbentzimenduz baino gehiago, onenengandik gertu ibiltzeko. Liga berean eta estropada eremu berean bi motatako ontziak ikusten ari gara. Oso profesionalak direnak eta amateurak. Uste dut hori ez

dela justua eta ez dela ekarpen ona arraunarentzat».

Iraunkortasunari dagokionez, Agirrek adierazi du arraunean «asko kostatzen» dela harrobia sortzea, eta orain arteko araudiak «era honetako lehiaren desorekak eta motibazioa galtzea» eragiten duela: «Arrauna mundu txikia da, dirurik ez dago. Kantaurikoan dauden 100 klubetatik bi edo hiru kenduta gehienak apalak eta harrobikoak dira, eta beraiei ez dagokien arauetan ari dira lehiatzen». Agirreren hitze-

{ **analisi** } **Zuriñe IGLESIAS** Kazetaria

Sagarrondoak astindu nahian

bidearen inguruko bere hausnarketa plazaratu nahi du. Gogoeta horren bi bideo igo ditu Harribiribil kanalera, eta TKE-n dauden klub guztiei bidali die. Ez du erantzunik jaso.

Tolosan bildu da NAIZekin Agirre. Arraunlaria izandakoa da, eta orain beteranoetan dago. Ez du klubekin inolako loturarik. «Anonimotasuna gordetzearen arrazoia da pertsona nor den ez dela garrantzitsua, baizik eta gogoeta eta debate bat sortzea, etiketarik jarri gabe», nabarmendu du. «Errespetutik eta edukiziotik» plazaratu nahi du bere gogoeta.

Agirrek adierazi du arrauna harrobiak «sostengatzen» duela: «Oso esparru txikiko edo toki mugatua duen kirola da tostako arrauna. Oso fitxa gutxi mugitzen ditu, klub txikiak, ertainak eta handiak daude. Baina, orokorrean, kirol minoritarioa da, gogorra. Begiratu

Arrauna hartzen ari den norabidearen inguruko bere hausnarketa plazaratu du Aitor Agirrek. Izen asmatua da, anonimotasuna gorde nahi baitu. Haren ustez, araudiak «pisu gehiago» eman beharko lioke harrobiari. TKEko klubek datorren urtean dute aukera araudia aldatzeko. Lau urtez behin egin daiteke.

tan, hori iraunkortasunaren ikuspegitik, «ez da ona».

Are gehiago, haren ustetan, harrobia sortzea «denon ezinbesteko ardura da», eta «ia erabat beste klubetako harrobitik elikatzen diren klubak ez lukete egon behar». Izan ere, Agirrek nabarmendu du harrobiari goi lehiaketan «pisua» ematen zaion heinean, «pizgarririk handia izan daitekeela harrobiarentzat eta hau ontzen duten elkarteetako jendearentzat, ikusiko baitute ereiten denak fruitua ematen duela».

Merkantilismoa

Eta ikuspegi merkantilista duten pertsonen zer esaten die? Ez dela ari filosofia «berdinaz; ez tamainaz, ez tipologiaz». Agirrek azaldu du arrauna «oso kirol mugatua» dela, «EAEn, fitxen %1 dela beste kirolekiko», eta «beste kirol galaktikoek duten filo-

sofia berean edo merkatu librean jokatzeko arauak arraunarekin ez datozela bat». «Norbaitek sortu behar du harrobia», nabarmendu du arraunlari ohiak, eta gaineratu, «oraingo jokoa dela batzuk harrobia sortzea eta beste batzuk horretaz elikatzea, diruz, eta gainera, dena irabaztea».

Galdera bat bota du hausnarketarako: «Besteek zergatik ez dituzte joko arauak aldatzen? Gutxi batzuen joko arauetan ari gara denok. Gogoeta hori da, zergatik ez ditugu joko arauak orekatzeten?». Eta zer aldatu da azken urteetan, joko arauak aldatu egin behar direla esateko? Agirrek azpimarratu du ez dela azken urteotako kontua, baizik eta, «urte asko daramatzagula dinamika berean».

«Lehen Cantabriakoak ziren dena irabazten zutenak eta marka guztiak hausten zituztenak, dopina ere sartu zen tartean. Gero, dirua galdu zutenean, dena galdu zuten, ez zutelako inbertitu harrobian, instalazioetan edo oinarrian. Eztabaida hau lehen ere sortu zitekeen. Ikusi da beste ontzi batzuk ere egin zutela saiakera: Portugaletek, Santurtzik... Hau ez da berria. Zergatik sortzen da orain? Inork ez duelako sagarrondoa astindu, eta uste dut astindu egin behar dela».

«Harrobirik gabe ez dago arraunik», esaldi horrekin laburbildu du Agirrek gogoeta, eta nabarmendu du elkarte «apalek» ehuntzen dutela arrauna, eta beraien «neurria marraztu behar» dela etorkizuna. «Araudiak pisu gehiago emango balio harrobiarekin jokatzeari, oinarria zaintzen eta indartzen ariko ginateke, eta horrek arraunari bizi-itxaropena emango lioke».

TKE elkarteko araudia lau urtez behin aldatu daiteke, urte olinpiko bakoitzean. Datorren urtean, 2024an, aukera egongo da horretarako. Araudia aldatzeko Eusko Label Ligan dauden hamabi klubetatik zortzik eman behar diote babes proposamenari, eta indarrean sartuko litzateke 2025etik aurrera.

Sagarrondoa astindu, klubek egin beharko lukete. «Pausoak emateko ausardia baino gehiago, esango nuke beldurra dagoela. Hainbat prestatzaile entzun ditut esanez hurrengo urtean gorenko ligan araudiarekin jarraituko dutela, baina egokitu beharra dagoela, eta saiatuko direla ontzia indartzen. Baina ez zaie okurritzen esatea: badakigu zer liga den, zer dagoen, eta zergatik ez dugu aldatzen eta denon interesera ekartzen? Gogoeta horretara ez dira iristen, eta gauzak aldatzeko daude, onerako baldin bada».

«Nolako lehiaketa?»

Afera honetan klubek daukaten hitza, zehatzago esanda,

Eusko Label Ligan dauden hamabi klubek. Izan ere, Eusko-tren Ligan dauden, baina gorenko mailan gizonzkoen trainerua ez duten ontziek ez dute ez ahotsik ez botorik. Horiek dira Arraun Lagunak, Tolosaldea, Hibaika eta Tiran. Horiez gain, beheko mailetakoa traineruek ere ez dute erabakitze ahalmenik.

Zenbait arraun elkarteko ordezkarien iritziak bildu dira, gaia osotasunean aztertzeke asmoz. Horiek dira Agustin Aramburu (Gallarta, Abanto, 1949) Urdaibaiko presidentea, Jose Manuel Gorostiaga (Getaria, 1961) Getariako delegatua eta zuzendaritzako kidea, Kike Mokoroa (Tolosa, 1977) Tolosaldeako koordinatzailea, eta Joseba Fernandez (Pasai Donibane, 1974) San Juaneko entrenatzailea.

Aramburu Urdaibaiko presidentea galdera bat jarri du mahaigainean: «Zer nolako lehiaketa nahi dugu?». Haren ustez, hori erantzuten denean, orduan aztertuko dute kontua.

«Guk egin ditugun ikerketen arabera, harrobiaren al-

de bozkatu zuten klub guztiek beherakada izan dute, Bermeok eta Hondarribiak izan ezik. Ontzia harrobikoa izatea oso polita da, baina harrobikoa izate hutsagatik arraun egin behar bada, trainerua ahuldu egiten da. Arraunlari batek taldea uzten badu, ni saiatuko naiz beste batengatik ordezkatzeko, berdina edo antzekoa ekartzen». «Bou Bizkaia» traineruak aurtengo 21 arraunlarietatik bost zituen harrobikoak.

Presidentearen hitzetan, «harrobikoak izan behar du TKE-n arraun egiteko bezain ona», eta «ezin dena da arraun egin harrobikoa izate hutsagatik». Athleticen adibidea jarri du hori azaltzeko.

«Athleticek badaki oso zaila dela Europara joatea edo liga irabaztea, baina filosofia horrekin jarraitzen du eta ez du inor behartzen hori egitera. Arraunean berdina gertatzen da. Harrobiko gehiago nahi dituzula? Zuk jakingo duzu zergatik. Guk uste dugu harrobikoek lehiaketa ahultzeko dutela».

Getariako trainerua, aurtengo udan, Orioko estropadan.
Jon URBE | FOKU



Aldi berean, Aramburuk adierazi du orain araudia jarri nahi badute goran dauden klubak «ahulduko» dituelako, «hutsegite larria» dela: «Nik ere nahi ditut zortzi harrobiko izan, baina maila emango dutenak arraun egiteko. Benetako lehiaketa bat izango den Eusko Label liga bat nahi baldin badugu, egiazkoa izan dadila. Orain nik galdera bat botako dut: Egingo dugu lehiaketa bat harrobiko gehien dituenak irabaziko duena? Hori ez da kontua».

Presidentearen ustetan, 2003tik 2012ra TKE «ederki» zihoan, eta orain aztertu behar da zer gertatu den 2012tik 2023ra. Bi filosofiak aztertu behar direla nabarmendu du Aramburuk: «2016an Hondarribiak irabazi zuenean eta errekor guztiak hautsi zituenean, hor ez zen hitz egin harrobikoez. Bermeok ezer ez duenean irabazi ez da hitz egin harrobikoez, eta aurten ikusten dutenean bizkaitarrak, Zierbena eta Bermeo, goran daudela, orain bai heldu behar zaiola harrobikoen aferari. Ezin dugu lau urtez behin araudia aldatu».

Aramburuk adierazi du arazoa dela ez dagoela arraunlaririk. Bermeoko presidenteari galdetuta ea hori ez ote den harrobia ez delako nahikoa lantzen, hark erantzun du arrauna «beheraldia» izaten ari dela, eta «asko mintzen» duela horrek.

«Harrobiarengatik da? Uste dut alderantziz dela. Ez daude arraunlariak merkatuan. Busturialdea eremu oso mugatua da, batzuek asko egin dezakete eta beste batzuek oso gutxi. Bermeokoak ez propioak dira, orduan Elantxobek eta Busturialdeak haien klubeko harrobikoak sartu behar dituzte, baina



Urdaibaiko arraunlariak, aurten irabazitako Kontxako bandera ospatzen.
Andoni CANELLADA | FOKU

oraindik ez dute maila nahikoa liga horietan lehiatzeko. Beraz, talde hori jaitsi egingo da. Araudia behera doa. Hamahirutik zazpi toki baldintzatuta dituzu, eta arraunlari ez propioak oso leku gutxi du beste klubetan».

Harrobia helduleku

Getaria eta Tolosaldea dira gorengo mailan bi adibide garbi harrobia helduleku dutenak. Kostaldeko eskifaian hemeretzi arraunlaritik hamahiru dira bertakoak, eta barnealdeko taldean hemezortzitik hamabi. Tolosaldeako koordinatzaileak argi du beraien filosofia «harrobia zaintzea» dela.

«Gu bateletatik gatoz eta gurean batelek garrantzi handia dute. Gaur egun helburua da harrobien dauden arraunlarietokizunean traineruan egoteko aukera izatea. Egia da baita ere, arraunlari baten mailaren arabera, gorengo mailara heltzeko aukera izango duela edo ez. Baina guk ikusten dugu gauzak txukun eta ondo eginez gero, bateletatik ateratzen diren

arraunlarietok aukera dutela traineruan ibiltzeko».

Bide beretik, Getariako delegatuak nabarmendu du herri «txikia» izanda, ekonomikoki arazorik ez dutela, baina erraztasunik ere ez, arraunlariak ekartzeko, eta, beraz, harrobia «lantzen» duten zerbait dela. «Guk harrobiko jendearekin ez badugu lanik egiten, inork ez du egingo, hori argi dugu», nabarmendu du Gorostiagak, eta gaineratu, «bihar edo etzi» erdia behintzat ez badira herrikoak, «argi» dutela ez direla ibiliko arraunean «orain bezala».

Tolosaldeak kanpoko jendea ere fitxatzen du, ontzia indartze aldera, baina Mokoroak argi du harrobikoez osatu behar dutela ontziaren bizkarrezurra, eta «ez alderantziz»: «Kirol elkarte batzuek, eta guztiz errespetagarria da, talde ona egiteko kanpotik jende ona ekarri eta araudia betetzen dute. Traineruan hiru-lau harrobiko izanda, nahikoa. Uste dut kirol elkarte bakoitzak herri batean edo eskualde batean la-

na egin behar duela, eta hori sustatzen da harrobiko jendea edukita».

Horren harira, Getariako delegatuak adierazi du beste klub batzuek «diruarekin» egiten dutena dela «harrobia baztertu, eta handik eta hementik fitxaketak egin». Eta hori egiten dutela «aukera duten bitartean». Horregatik, Gorostiagak uste du harrobikoen kopurua igo egin behar dela.

«TKEko batzarretan, azkenean denok ezagutzen dugu elkar, eta badakigu jendeak nondik joko duen. Harrobikoen kopurua igo egin behar da. Baina zu ari zara mutil koxkorak hartzen, mimatzen eta gozatzen, eta gero etortzen dira diru pixka batekin eta eraman egiten dituzte. Hainbeste lan egin dugu, eta badoa».

Horrekin zerbait egin behar dela nabarmendu du Getariako delegatuak, eta galdetuta zein den klubeko proposamena, adierazi du traineruan harrobiko sei egotea eskatu beharko dutela. Baina zortzi klub behar dituzte, eta hasi da kontatzen: «Orio, Hondarribia, gu, Lekeitio, Cabo... bost ditugu, baina beste hirurak?». «Saiakera bat» egin behar dutela azpimarratu du, bestela, «beti txikiak» daudela «atzera eginda».

Bestalde, Getariako ordezkariari galdetu zaio ea gero eta gazte gutxiagok izena ematen duten klubean. «Azken bi urte hauetan oso ondo gaude. Hiru batel eta beste trainerilla bat osatu dugu. Aspaldiko partez gauza eder-rra da».

Bide beretik, Mokoroak adierazi du Tolosaldeak azken urteetan gorakada izan duela, nolabait, traineruak «arrakasta» izan duelako: «Arrakasta izan ondoren, jendeak ikusten du eta esaten

du: agian hemen irtenbide bat izan dezaket. Mutilen kasuan, ordea, oso mugatuta gaude. Zailtasunak ditugu».

Gorostiaga Getariako delegatuaren ustetan, arazo handiena gazte mailako arraunlarietan dute. «Arraunlariak gazte mailara iristen dira eta alde egiten dute. Parranda zer den ikasten dute eta ez dakit hori den arazoa, baina... Orain kasik ez dago gazte mailakorik. Niretzat arazoa ez da goian ez dutela aukerarik. Arrauna gogorra da, garai onenean ibili behar da, udan, eta denoi gustatzen zaigu uda».

Kontxako adibidea

Fernandez San Juaneko prestatzailea bi filosofia ezberdinetako klubetan egon da, eta arraun munduan aski ezaguna den pertsona da. Bermeon, Pedreñan eta Lapurdin ere entrenatzaile izandakoa da. Haren ustez, «mahaigainean» jarri beharreko gaia da. Bideoaren edukia «bikaina» iruditzen zaio, baina «horrek ez du esan nahi gauza guztietan ados» dagoenik.

Fernandezek adierazi du arraunketako azken hogeitertean bi filosofia «bata bestearen kontra» lehiatu direla: «harrobia eta fitxaketak». «Duela bost urtera arte harrobia gehien lantzen duten klubak gai izan dira beste aurre egiteko, nahiz eta besteek ere haien momentuak izan. Hondarribiak eta Oriok, bere burua gai ikusten zuten beste aurre egiteko», azaldu du San Juaneko entrenatzaileak. Oriok 2019an irabazi zuen liga, eta Hondarribiak 2015ean.

«Zer gertatu da orain?» segitu du Fernandezek, «beste filosofia duten klubek orain arte lortu ez duten egonkortasuna lortu dutela». Haren hitzetan, halako taldeek



Tolosaldea, Hondarribian jokaturako Euskotren Ligako estropadan. Gorka RUBIO | FOKU

orain arte aldaketa ugari izaten zituzten, bat-batean zortzi-hamar arraunlarik uzten zuten taldea, eta multzoa beregin behar zen. Egoera horretan, Fernandezek esanetan, «harrobikoek lortzen zuten haien kontra lehiakorak izatea».

Orain, ordea, prestatzaileak nabarmendu du Urdaibaik, Zierbenak eta lehen Kaikuk, Kortarekin egin zuen bigarren aroan, egonkortasunaren bitartez, gai izan direla taldea gehiago indartzeko: «Hamabost arraunlari dituzte, eta gaitasun ekonomikoa dutenez, aukera dute Caboko edo Hondarribiako onena fitxatzeko. Orduan, gai dira aurkarien ontzia ahultzeko eta haiena indartzeko. Eta, horrela, diferentzia areagotu egiten da».

Fernandezek nabarmendu du Kontxan «diferentzia oso esanguratsua» izan dela, «izugarritzko alde» egon baita, «gehiegi». Momentu «lata» da arraunketarentzat, eta ez horregatik bakarrik, azpimarratu du prestatzaileak. Hirugarren mailan zazpi tal-

de «bakarrik» daudela adierazi du, eta bigarren mailan «puntan» dabilzan arraunlari batzuk «nahiago» dutela Eusko Label Ligan egon, «nahiz eta estropadetan ez parte hartu, beheko mailan egon baino».

Alde horretatik, galdetu dio bere buruari ea Eusko Label Ligak «onura edo kalte» egiten dion arraunketari: «Hasieran denok ados geunden aurrerapausoarekin, baina gaur egun hasi gara galdetzen ea etxeko arraunlariak bultzatzeko sortu zen ideia alderantziz etortzen ote zaigun».

«Erabakiak hartu behar» direla nabarmendu du Fernandezek, zalantza du araudia «horren zorrotza» izanda, lehiaketak arrakasta izango ote duen. Baina, «zerbait egin beharra» dagoela argi du.

«Oraintxe bi talde daude, eta hori ez da aldatuko datorren urtean. Ligan ikusten duguna ez da benetakoa, Kontxakoa da erreferentzia. Zerbait egin behar da. Bestela azkenean jostailua bukatuko zaigu, eta ez dut uste

inork hori nahi duenik». Fernandez baikor mintzatu da klubengandik inguruan, eta uste du gaiari berandu baino lehen helduko diotela. Hori bai, proposamena nork aterako duen ez du argi. «Hondarribia, Orio, Ondarroa... Guretzat ere ona da».

Horrez gain, beste eztabaida bat utzi du mahaigainean: «Nola da posible Eusko Label Ligako hamabi taldeek erabakitzea Euskotreneko gorabeherak? Hori beste mende bateko kontua da». Hain justu, Tolosaldea da klub horietako bat. Gizonezkoen trainerua ez duenez, ez du erabakitze ahalmenik TKEEn.

Mokoroa klubeko koordinatzaileak esan du «erakunde pribatu batek antolatutako liga» dela, eta beraiek onartzen dutela araudia. Hala ere, Tolosaldeakoak azpimarratu du «diferentia» dela «nola dagoen eta nola izan daitekeen nesken liga bat», eta horregatik, klub horiek esan behariko luketela «zer iruditzen zaien egokiena: antolaketa, liga eta igoerak eta jaitsierak kontuan hartuta».



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK



Barrura begira

Miren AZKARATE
BADIOLA

Er-raza egiten zaigu, hanka edo besoa apurtzen dugunean, sendagilearengana joan eta, lanera joateko ezinduta gaude-nez, baja eskatzea eta onartzea. Baina zein zaila den “burua puskatzen” zai-gunean edo, beste modu batera esan-da, barruak krak egiten digunean, pau-so berberak ematea.

Osasun mentalaz hitz egiten hasi ga-rra gure artean eta, oso gai zabala den arren, eta, beraz, lantzeko zaila, poliki-poliki gaiarekiko enpatia sentitzen de-la esango nuke; nahiz eta oraindik la-gunartean, lantokian edo baita sendagileren batek edo bestek ere arra-

ro begiratu, esanez bezala «zer esaten ari zara?».

Disoziazioa aipatu nahi dizuet gaur-koan. Psikologian, modu sinple batean esanda, burua eta sentimenduak bat ez datozenean gertatzen dena da. Trauma baten ostean, defentsa mekanismo be-zala funtzionatzen du: «Ez dut sufritu nahi, beraz, deskonektatu egingo dut eta kitto». Horrela, ez da minik senti-tzen. Baina pozak ere ez dira sentitzen. Eta sekretu bat esango dizuet: horrela bizitzea askoz ere errazagoa da niretzat, sentituz bizitzea baino.

Sintomak askotarikoak dira eta ho-rien artean aurkitzen dira adibidez es-

tresa, antsietatea eta depresioa. Koktel bikaina!

Argi dut, “euskal gatazka” deitu du-gun honetan, torturak, espetxeak, erre-presioak, erailketak, desagerpenak, etab. luze batek sortu dizkigun traumak pai-ratu ditugunen artean, ez naizela baka-rra horrelakoak bizitzen ari dena. Ger-taera askotariko hauen ondorio askotarikoak norberarengan ezberdin eragiten dutela ere ohartzen naiz. Bide luzea dugu egiteko, honaino iristeko izan dugunaren antzera.

Zaintza hainbeste entzuten dudan egun hauetan, zaindu dezagun hau ere, zaindu gaitezen gu. •

Gauza batzuk ez dira aldatu

Amagoia MUJIK
TELLERIA

Barbara Rey ikusi dut dokumen-tal batean duela 35-40 urteko indarkeria matxista gertaera bat deskribatzen. Bikote ohiak bizitza birrindu zion eta beldurra sartu zion hezurretaraino. Bere puskak lurre-tik jaso eta berreraikitzen ari zela, egun batean indar nahikoa sentitu zuen seme-alaben bila eskolara joateko. Han gertatu zen eraso. Haurrak seko ikara-tu ziren aitaren autoa eskolaren aurrean ikusi zutenean. Aitak, Angel Cristok, urruntze agindua zuen eta legez ezin zuen han egon. Emakumea ez zen libra-tu astindu eder batzuk jasotzetik, esko-lako atarian, beste gurasoen eta haurren begien aurrean. Bere seme-alabak hor-tzekin defendatu zituen. «Inork ez zuen ezer egin guri laguntzeko. Inork ez. De-

nek beste aldera begiratu zuten», konta-tu du Reyk.

Gauza batzuk aldatu dira. Pentsatu nahi dut gaur egunean ama horrek ez zuela bakardade hori sentituko, hain-beste begirada gainean dituenaren ba-kardade mingarri hori. Pentsatu nahi dut feminismoak hamarkada luzez egin duen lana igartzen dela, jendartea ez de-la lo geratzen indarkeria matxistaren aurrean. Hori sinistu nahi dut.

Baina badira aldatu ez diren gauzak. Barbara Rey-ri hori gertatu zitzaionean mutiko bat zenak bere semea besoetan hartu eta amildegi batetik behera salto egin du. Ama bati mina emateko modu-rik eraginkorrenetakoa seme-alabak akabatzea dela ez da gaur goizekoa, as-paldi asmatu zuen matxismoak sufri-

mentu modu hori. Mina eragiteko es-trategia errepikatu egiten da eta, ondo-rioz, amak eta seme-alabak ikusteko, maitatzeko eta bizitzeko modua errepi-katzen da, ezta?

Seme-alabak bikotearen barruan uler-tzen dira, partekatzen den objektu bat balira bezala. Ez dakit aitak maite dituen edo ez, baina maitasun horren gainetik dago amari mina egiteko nahia, bizitza guztirako min amaigabea. Aitatasuna bizitzeko moduek ere zer pentsatua ematen dute.

Baina hori guztia ez da berria, aspaldi-koa da, eta oraindik ere gertatzen bada, esan nahi du matxismo krudelena bai-mentzen duen zimenduen gainean ari garela gure herria eraikitzen. Gauza ba-tzuk ez dira aldatu, hori da arazo. •

«DEEFAKE» SEXUALAK

Adimen artifizialak intimitatea biluztu eta eskubideak urratzen dituenean

Biluztu edonorgure doako zerbitzuarekin», dio web orri bateko ongietorri mezuak *deepfake* pornografikoak sortzeko. Ez da aditua izan behar webgune horiek aurkitzeko, ezta erabiltzeko ere; gorputz osoko argazki bat igo eta minutu bat baino gutxiago itxaron behar da espero den emaitza lortzeko. 60 segundoko bideo porno *deepfake* bat egiteko, 25 minutu baino gutxiago behar dira, eta doan egin daiteke (ordainpekoak ere badaude), norbaiten aurpegiaren irudi bat bakarrik erabiliz, Home Security Heroes-en “State of deepfakes 2023” txostenaren arabera.

Ez da berria, lehen *deepfake* ak emakume ospetsuekin hasi ziren: Jennifer Lawrence edo Scarlett Johanssonen aurpegiak moztu eta eszena pornografikoetan txertatzen zituzten, eta ondoren, helduentzako orrialdeetan zintzilikatzen zituzten, bai bideo formatuan, bai argazkietan.

«*Deepfake* sexualak, adimen artifiziala erabiliz irudi sexualak sortzea ez da, oraindik, delitu espezifiko gisa hartzen Zigor Kodean. Nolanahi ere, kontuan hartuta genero-indarkeria dela emakumeen aurka egiten den indarkeria oro, horrelako irudiak sortzea beste indarkeria mota bat baino ez da», azaldu du Rocio Pinak, Kataluniako Oberta Unibertsitateko (UOC) Psikologia eta Hezkuntza Zientzietako eta Kriminologia Graduko Irakasleak. «Biktima manipulatu eta suntsitzea da helburua, *revenge porn* (mendeku pornoa) edo *sextortion* dela-koarekin bezala», gehitu du.

TEKNOLOGIA / GAUR8

Ez da aditua izan behar «deepfake» pornografikoak sortzeko. Nahikoa da pertsona baten argazkia sarean erraz aurki daitezkeen webguneetako batean sartzea. Sortutako irudi faltsu horiek, ordea, ondorio oso larriak izan ditzakete biktimgan. Adituek diotenez, funtsean, emakumeen aurkako beste indarkeria mota bat da.



Aipatutako ikerketaren arabera, 2022tik 2023ra bitartean sortutako *deepfake* pornografia kopuruak %464 egin zuen gora, 2022an 3.725 bideo izate-tik 2023an 21.019ra igaroz.

Zuzenbidearen ikuspegitik, fenomeno honek bi eskubide handi urratzen ditu: datuen babesa edo pribatutasuna, eta baita intimitatea, ohorea eta norberaren irudia ere. «Datuak babesteko araudia urratzen da; izan ere, informazioaren zabalkundean, funtsean faltsua bada ere, benetako datu pertsonalak erabiltzen dira, hala nola, pertsona baten aurpegia edo, batzuetan, baita ahotsa ere, eta horrek askotan datu pertsonalak tratatzea dakar, tartean denaren baimenik gabe», zehaztu du Eduard Blasik, UOCeko Zuzenbide eta Zientzia Politikoko Ikasketetako irakasle kolaboratzaileak.

«Lege urraketa gertatzen da, halaber, sorkuntza horiek IA-rekin hirugarren pertsoneri partekatze edo zabaltzeko unean, eta, batzuetan, baita sare sozial irekien bidez ere, tartean denaren baimenik gabe. Beraz, arauak interesdunaren baimena eskatzera behar-tzen du, irudi horiek sortzeko ez ezik, ondoren beste pertsona bati edo sare sozialetan zabaltzeko ere bai», gehitu du pribatutasunerako eskubidean aditua den Blasik.

Gainera, garrantzitsua da informazio horren izaera eta eragindako subjektuengan duen eragina nabarmentzea. Zehazki, honako hau gehitzen du adituak: «Irudi horiek datu sentikorren tratamendua dakarte askotan, informazioa pertsona baten bizitza intimoarekin edo sexualarekin lotuta baitago, eta, teknologia horren bidez sortutako irudien arabera, pertsonaren oho-

rerako, intimitaterako eta/edo norberaren irudirako eskubideari ere kalte egin dakioko».


EMAKUMEEN AURKA IA BETI

«Bideo gehien-gehienek emakumeak dituzte biktimitzat, eta beren irudirako eskubidea urratzen dietela ikusten dute, kontsumo pornografikoko objektu bihurtuta. Eragin psikologiko handia du, inoiz gertatu ez diren arren, oso errealistak diren praktika sexualak adierazten dituelako», dio Cristina Pujol UOCeko Informazio eta Komunikazio Zientzien Ikasketetako irakasleak eta GAME taldeko ikeritzaileak. Hala berresten du «State of deepfake 2023» txostenak: *deepfake* eduki pornografikoaren %99ren protagonistak emakumeak dira.

«Zoritxarrez, oso merkatu handia dago emakume biluzien irudiak sortzera bideratuta. Ez du esan nahi errazagoa denik emakumeen irudiak sortzea gizonenak baino, baina, funtsean, zerbitzu horiek norabide horretan doaz. Gainera, pornografia-kontsumitzaile gehienak gizonak dira, eta, beraz, publiko horretara bideratuta daude», zehaztu du Josep Curto UOCeko Informatika, Multimedia eta Telekomunikazio irakasleak.

Izan ere, txosten horren arabera, galdetutako gizonen %48k gutxienez behin ikusi zuten *deepfake* pornografia (azken 6 hilabeteetan pornografia kontsumitu zuten Estatu Batuetako 1.522 gizonetako parte-hartzaile egindako inkesta baten arabera). *Deepfake* pornografiarekin interakzioan aritu ziren erabiltzaile horien % 74 ez zen errudun sentitzen kontsumitzeagatik.

«Emakumeen artean sexualizua zabaltzeko modu bat da,



Teknologia berriak dira, baina indarkeria jasaten dutenak, betikoak. «State of deepfake 2023» txostenak ez du zalantzarik uzten, sortutako eduki pornografikoaren %99an protagonistak emakumeak dira. GETTY IMAGES

ziberjazarpen-testuinguru orokortu batean, non sexu-bideoetan agertzen diren emakumeak gizonak direnean baino askoz gogorrago zigortzen diren, moral bikoitza erakutsiz», gehitu du Pujolek.

BENETAKO ERAGINA

«Indarkeria erabiltzeko modu berri horrek zabaldu egiten du indarkeria horren irismena, eta areagotu egiten ditu indarkeria hori jasaten duten biktimgan dituen ondorioak», azaldu du Pinak.

Ikerketa baten arabera, 2022tik 2023ra bitartean sortutako «deepfake» pornografia kopuruak %464 egin zuen gora, 2022an 3.725 bideo izatetik 2023an 21.019 izatera igaroz

Zuzenbidearen ikuspegitik, fenomeno honek bi eskubide handi urratzen ditu: datuen babes edo pribatutasuna, eta baita intimitatea, ohorea eta norberaren irudiari dagokiona ere

«Irudiak benetakoak ez izan arren, biktimgan duten eragina oso handia da, emakumeen sexualitatea erruaren eta lotsaren gainean eraiki baita. Gizonentzat, beren konkista sexualak goraiatzea maskulinitatearen sinboloa izan da beti («konkista» hitzak berak lorpen bat dakar), baina konkista horien xede diren emakumeak lotsa publikoaren eraginpean egon dira. Patriarkatua emakumeen askatasun sexuala zigortzen duen sistema bat da, eta agerian gera-

tzen denean, irudi faltsuekin bada ere, babesgabatasunaren, indarkeriaren eta kontrola galtzearen sententzia benetakoa da», azaldu du Pujolek. Rocio Pinak honako hau gehitu du: «Horren ondorioak parekatu ditzakegu beste edozein motatako ziberdelinkuentzia sexuala pairatzen duenak jasan ditzakeen ondorioekin».

«Azpimarratu behar da gaur egungo testuinguru biral batean, non irudiak oso azkar dabilzan, erantzuteko gaitasuna oso txikia dela eragindako kaltearekin alderatuz», zehaztu du Pujolek. Irudia sortzeko teknologia kontrolatzea zaildu egiten da, erraz eskura baitaitezke eta zaila baita irudi horren trazabilitatea egitea. «Aplikazio berri horien ugaritze masiboan bizi gara, azken urtean testua eta irudia sortzeko sistema horietan aurrerapen handiak egin baitira», ohartarazi du Curtok.



Libe MORI CARRASCAL

UPV/EHUko Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea

Zer dela eta jasaten du kriptografia alorrek etengabeko aldaketa?

Historian zehar mezu sekretuak trukatzeko metodo ugari erabili dira. Kriptografia teknika matematiko ezberdinak erabiliz informazioa zifratzeko eta deszifratzeko zientzia da. Antzinako Egiptoko hieroglifiko misterioz batzuk dira kriptografiaren lehen hastapeak, baina ordutik asko aldatu da zientzia hau.


Julio Zesar enperadore erromatarrek bere jeneralekin komunikatzeko desplazamenduzko zifratze-sistema edo Zesarren zifratzea erabiltzen zuen. Zesarren zifratzea alfabetoa hainbat posizio eskuinera desplazatzean datza. Adibidez, hiru posizioko desplazamenduarekin A hizkia D bilakatzen da, B hizkia E eta Z hizkia C. Beraz, “BAI” hitza zifratzean, “EDL” bilakatzen da; “EZ”, aldiz, “HC”. Hiru posizioko desplazamenduarekin zifratutako mezu hau deszifratzen jakingo al zenuke? “CRULRQDN!”

Zenbat denbora behar izan duzu mezu hori deszifratzeko? Eta zifratzeko erabilitako desplazamendua zenbatekoa izan den jakingo ez bazenu, asmatuko al zenuke zein den jatorrizko mezua? Zenbat denbora beharko zenukeela uste duzu? Gaur egungo ordenagailu batek milisegundo bakar batzuk besterik ez lituzke beharko! Izan ere, latindar alfabetoan 27 hizki daudenez, alfabetoaren 26 desplazamendu ezberdin bakarrik dira posible. Edozein ordenagailuk ia bat-batean frogatu ditzake 26 aukerak eta, hiztegi bat erabilia, erraza da jatorrizko mezua zein den automatikoki identifikatzea. Aukera guztiak frogatzeari *brute force attack* deritzo.

Bigarren Mundu Gerran, Alemaniarrek Enigma makina erabili zuten. Makina honek barneko funtzionamendu elektriko mekaniko bati esker zifratu eta deszifratzen zituen mezuak. Makinak barnean bost errotoreko sistema bat zuen eta zifratzea errotore horien posizio aldakorraren arabera zen. Aliatuek, Alan Turing matematikariari esker, kodea apurtzea lortu zuten. Ondorioz, nazien mezu garrantzitsuak deszifratu ahal izan zituzten aliatuek. Naziak gerra galtzeko pisuzko arrazoi-tzat jotzen da Turing eta bere kideek egindako lana.

Gaur egun gehien erabiltzen den zifratze algoritmoa **Advanced Encryption Standard (AES)** da. Algoritmo hau guztiz irekia da, hau da, bere funtzionamenduaren azalpena edonorentzat eskuragarri dago. Mezu bat zifratzeko, 128, 196 edo 256 biteko luzera duen gako sekretu bat aukeratu behar da. Gako hau ezagutzen dutenek bakarrik deszifratu ahalko dute zifratutako mezua. AEBetako Gobernuak *top-secret* dokumentuak zifratzeko AES-256 algoritmoa erabili ohi du. Baina WhatsApp aplikazioak ere, AES-256 erabiltzen du mundu mailan egunero idazten diren mezu guztiak zifratzeko. Gakoa ezagutzen ez duen gaizkile batek WhatsApp mezuren bat deszifratu nahiko balu, 2256 gako posible guztiak frogatu beharko lituzke. Pelikuletan hackerrek segundo gutxi batzuetan egiten badute ere, errealtatean gure WhatsApp mezu bat deszifratzeko 1.000 milioi urte baino gehiago behar dira. Hau da, ezinezkoa da gaur egun AES-256 algoritmoa apurtzea gako sekretua seguru mantenduz gero.

Baina zer dela eta jasaten du kriptografia alorrek hainbesteko aldaketa? Zientzia eta teknologia alorretako aurrerakuntzen ondorioz, konputazio abiadura azkartuz doa. Hori dela eta, algoritmo bati *brute force attack* bat egitea azkarregia bilaka daiteke, eta ondorioz, algoritmoa ez da segurua izango. Zifratze algoritmoak seguruak diren bitartean erabili ohi dira, baina algoritmo baten ahulezia bat detektatzen denean, algoritmo berri seguruago batekin ordezkatzen da. •



Zesarren zifratzea alfabetoan hiru letrako desplazatzea egitean datza. GAUR8

BEHATXULO[TIK]

Juantxo EGAÑA



CARLOS BRANDT EDITOREA. CARLOS TEIXIDOR BILDUMA.

TXILEKO PILOTALEKUAK XIX. MENDEAN

Badakigu Txilen XVI. mendetik jokatzen dela euskal pilotan, eta historialari batzuek Alonso Ercilla aipatzen dute, jatorriz bermeotarra, Amerikako lurretako pilotari eta pilotaren zabaltzaile moduan. XIX. mendetik iritsi dira Txileko geografian sakabanatutako frontoi batzuen dokumentu grafikoak; Ballesteros de Santiago (1884an erai-
kia), Cañete (1886), Lebu (1993) eta Concepcionekeo biak (1885 eta 1889), besteak beste. Amerikako emigrazioaz egindako ikerketetan, Txilen bizi ziren Etcheverry
anaien korrespondentzia berreskuratu du Ariane Brunetonek. 1886ko urtarrilean, bere Arnegiko (Nafarroa Beherea) familiari bidalitako gutun batean, Elie Etcheverryk
dio pilota partida batera joan zela, «...Etchegaray anaiek eta osabak, Concepcionekeo bi gazteren, euskaldunak noski, eta Deyheralderen aurka jokatutakoan...». Urte be-
reko urrian halaxe kontaktzen die beste gutun batean: «...Datorren igandean pilota partida handia izango da Concepcionekeo frontoian: hegoaldeko hiru gazte iparralde-
keo beste hiruren aurka, ondo ulertuta, denak euskaldunak». Irudian Carlos Teixidorren bildumako postal bat ikus daiteke. Bertan, 1889an eraikitako Concepcionekeo
"Plaza Euskara" frontoia agertzen da, ikuslezt beteta, eta xistera jokariak argazkilariarentzat posatzen. Kronikek bertako xistera partiden berri eman zuten.
«...Igantetik igandera, arratsaldeetan, lanetik ateratakoan, Arretchea, Ribes, Uhart, Bordachar, Harismendy, Urrizola eta beste hainbat lagun biltzen dira kirol horretaz
gozatzeko. Urruneko aberria gogorarazten die, Pirinio zaharretan galdutako jatorrizko herria, edo beren guraso eta nagusien aberria ere bai».



ENTZUN. HITZ EGIN

Hitz egiteko,
entzun egiten
dugulako.

naiz:irratia

naiz:irratia

Donostia 93.8 / Urola 91.8 / Goierri 102.2 / Legazpi 94.6 /
Bilbo 92.2 / Gernika 96.7 / Durango 97.4 / Gasteiz 91.5 /
Bortziriak 103.1 / Leitza 95.1

irratia.naiz.eus

